

98

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

2017ko urria



ELKARRIZKETA

Maria Jesus Esteban,
matematikaria:

*«Arlo askotako
problema ebazteko
matematika egiten ari
dira matematikariak»*

ERREPORTAJEA

**Euskal Hirigune
Elkargoa: Ipar
Euskal Herriko lehen
erakunde publikoa**

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



HEZKUNTZA

**Adimen
anizkunen
teoria:
adimenaren iraultza**

EDURNE ETXEBERRIA TELLETXEA

INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

**Blockchain eta haren aplikazioak
administrazio publikoetan**

FERNANDO CUADRADO





Clara Montseny

SAILBURUA

Zuzendaritza:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:

Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:

Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:

Xabier Amatria, Fulgen Aledo, Kaxildo Alkorta, Olatz Altuna, Begoña Ayerdi, Urtzi Barrenetxea, Fernando Cuadrado, Miel A. Elustondo, Edurne Etxebarria, Irene Fernandez, Maialen Iñarra, Estibalitz Jalón, Luma, Kattalin Miner, Maite Orue, Izaskun Zuntzunegi.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikulak berriro ere argitaratu daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ISSN: 1576-5563

Legezko Gordailua: BI-1141-93

Egilea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

Donostia-San Sebastián 1,
01010 VITORIA-GASTEIZ.
Tel. 945 01 76 37
www.ivap.euskadi.net

Aurkibidea

2 Marrazkia

ESTIBALITZ JALÓN

4 Pasadizoak

Udazkenean gara

KAXILDO ALKORTA

5 Elkarriketa

Maria Jesus Esteban:

«Arlo askotako problemak ebazteko matematika egiten ari dira matematikariak»

MIEL A. ELUSTONDO

10 Erreportajea

Euskal Hirigune Elkargoa:

Ipar Euskal Herriko

lehen erakunde publikoa

MAITE ORUE

13 Informazio eta komunikazioaren teknologiak

Blockchain eta haren

aplikazioak administrazio

publikoetan

FERNANDO CUADRADO MALASAÑA

16 Gramatika

Erdal hitzen deklinabidea

Euskaltzaindiaren 184. araua

IRENE FERNANDEZ

18 Leihatila

Baja eman

KATTALIN MINER

19 Erreportajea

Turismo ereduaren

argiak eta ilunak

MAITE ORUE

24 Komunikazio elektronikoa

Loturak zertarako dira,

eta nola erabil daitezke

praktikoak izan daitezke?

IZASKUN ZUNTZUNEGI

26 Giza baliabideak

Administrazioarako hautaketa-prozesuak XXI. mendean.

Betiko moduan jarraituko dugu?

FULGEN ALEDO

28 Normalizazioa

Hizkuntzen erabileraren

vii. Kale-Neurketa. Euskal

Herria, 2016: Emaiza nagusiak

OLATZ ALTUNA ZUMETA

MAIALEN IÑARRA ARREGI

32 Hezkuntza

Adimen Anizkunen Teoria:

adimenaren iraultza

EDURNE ETXEBERRIA TELLETXEA

34 Denbora-pasak

[ARIKETAK]



Udazkenean gara

KAXILDO ALKORTA

LAGUNA

Aitonak irakatsita txiki-txikitatik dakigu udazkenean irailaren 21ean hasten dela. Negua abenduaren 21ean hasiko da, udaberria datorren urteko martxoaren 21ean etorriko zaigu, eta hurrengo ekainaren 21ean udan sartuko gara. Hori irakatsi zigun eta egun horiek ditugu –bai nik behintzat– urteko lau aroen edo sasoen hasiera eta amaiera markatzeko. Egutegietako adituek zehatzago jokutzen dute eta badakite 21ekoa ordu batzuk aurreratzen, baita 22ko ordu txikitara eramaten ere. Baina 21a.

Uda ere joan zaigu ba! Ondo portatu al da? Ezetz diote gure inguruko eguzkimendekoek, larrua belztu ezean bakerik ez dutenak. Uda kaxkarra askoren iritzi. Ortuaritarako, ordea, urte ona izan omen dugu oro har, eta azken hamar urteetako sagar urterik onena... Tomateak ez duela eman, asko alferrik galdu dela; pikuak sasoz baino lehenago heldu direla, baina aho zabalik... Entzunak.

Udazkenak ere ekarriko ditu babarruna eta patata, eta aterako die bizarra artaburuei; burugorritu egingo ditu aurrea eta ondoren burusoildu zuhaitzak; urtero bezala bidaliko ditu euren lurraldeetara ainarak, enarak edo alaiak direlako txori etorkin horiek; hotza ekarriko du; tripa-festak, *txarribodak*, antolatuko dira han eta hemen txerrien kontura (ez dakite ondo gizarajoei txerriegian jan eta jan ari direnean); Balmasedan *el día de las pucheras* (lapiko eguna) ospatuko dute san Seberinoren omenez. Santuetara jota, ez pentsa denak gutako asko bezain trixteak

eta gatzgabekoak ziren. San Seberinoz gain, Santu Guztien eguna jai da eta ondoren ditugu, besteak beste, san Martin hainbat auzotako erromeria-jartzailea; santa Zezilia musikarien kantinera; santa Katalina esaera zahar eta guzti: *santa Katalina noiz da? / bisigutako goiz da*; san Andres (Azkoitia dema, Eibarren jai; txikitan ederki haserretzen zen gure lagun bat esaten genionean *Andrex, katua negarrez*); Xabierko Frantzisko pilotarien patroia; santa Barbara, artilleriakoak zerura bideratzen dituen –irudimena, irudimena!–; santa Konstituzione (ala san Konstituzio?); santa Luzia, Zumarragan jai animaliatua duena, elkar ikusi ezindako asto pare bat baino gehiago bedeinkatua. Eta abenduaren 21ean, san Tomas, *santo Tomasen peria, txorixoa eta ogia*. Hark esan zuen ba: *Ikusi eta sinistu*, bat ere arrazoirik gabeko esaldia, aspalditik topikoa, eta euskaraz ari garela ere sarritan entzungo duguna, baina gaztelaniaz: «Esaten den bezala, *ver y creer*». Topiko txoroxa. *Ikusi eta sinistu?*, *ikusita sinistu?* Ikusi egiten bada, ikusi egiten da, eta kito; sinistu, ikusi gabe sinisten da; sinisten dena gero ikusiko dugu agian edo beharbada, edo bat ere ez.

Urtearen hiruhilabeteroko 21az hasi naiz, baina bidetik alde eginda nabil. Udazkenak jo nauela ematen dit. Aurrenekorat etorri, eta, nola jakingo genuke guk geuk urtea noiz hasten den eta noiz amaitzen den?, nola bereiziko lau aroak?, nola lau sasoiak 21a?, zergatik 12 hilabete?, eta egunak, orduak...

Nik benetan hutsala sentitzen dut nire burua honetan. Ikusi bai, ikusten dut egunak luzatzen eta moztzen direla, baina

igarri bai, gaur orain astebate baino bost minutu laburragoa izan dela arratsaldea? Ez. Sasoi ere antz ematen diet, baina zenbati?, lauri?, hiruri? Aldi batean edo batzuetan eguraldi beroagoa edo epelagoa ukan ohi dugula, beste batean freskoagoa edo hotzagoa; horri bai. Horretatik koxka dago, ordea, gure egutegian zehatz markatuta dugunera. Egutegirik ez bagenu, ni behintzat ez nintzateke egokia txoriburu lan honetarako: hegazti-samalden batetik besterako hegaldi luzeetarako urte-sasoi egokia aukeratzeko. Egutegia nahitaezkoa dut.

Julio Zesarrek aginduta erreformatu zuten erromatarrek ordura arte erabilitako egutegia Kristo aurreko 46.ean hori. Lurrak Eguzkiaren inguruan itzulia egiteko denborara zehatzago egokitu nahi zuten egutegia. Urteari aitortu zizkieten 365 egun, 5 ordu eta 55 minutu, baina konaturatuta lau mendetan 3 eguneko atzerapena gertatzen zitzaiola, hala ere, egutegi berriari, Lurrak bere bira egiteko ematen zuen denborarekiko. Lau mendetan hiru egun! Zenbateko aldea jotzen du horrek 20 minutuan? Atera kontua: estropade-tako helmugako argazkian bereizi eziniko tartea. Hala ere, Elizak zuzendu nahi izan zuen akats hura eta 1582an aldaketa sartu zioten eta *egutegi gregorianoa* esaten zaio orain gurea dugun hari. Orduko aita santua Gregorio XIII.a zen. Horregatik.

Zehaztasuna. Irailaren 16an, artean uda, santa Eufemia. Bermeen jai. Aulestin ere bai, mendi tontorreko ermita inguruan eta kalean. Baina ezin jakin zehatz ermitarako azken zatian 222 ala 223 harmaila diren. Gregorio XIII.aren antzekoren bat ekarri beharko? ■

MARIA JESUS ESTEBAN,

MATEMATIKARIA

«Arlo askotako problemak ebazteko matematika egiten ari dira matematikariak»

MIEL A. ELUSTONDO

KAZETARIA ETA IDAZLEA


Munduan punta-puntako matematikaria da Maria Jesus Esteban Galarza (Alonsotegi, Bizkaia, 1956). Euskal Herriko Unibertsitatean matematika lizentziatura egin 1978an, Parisen egin zuen doktore-tesia deribatu partzialetako ekuazioari buruzko hainbat problemaren gainean. Parisen egin du bere bidea. Ikerketa zuzendaria da CNRSn, eta Dauphine Unibertsitateko Ceremade zentroko kide. Matematika sustatzeko nazioarteko hainbat erakunderen eragile, kide eta buru izan da. Gaur egun, berriz, ICIAM Matematika Industrial eta Aplikaturako Nazioarteko Batzordeko lehendakari da, eta Jakiundeko kide¹.

2012an, Merezimenduaren Nazio Ordenaren Zaldun izendatu zuen Frantziak, Honoris Causa doktorea Euskal Herriko Unibertsitateak 2015ean, eta izendapen horixe jaso du iragan maiatzean Valentziako (Herrialde Katalanak) unibertsitatean. Izendapen honexetatik abiatu gara solasean...

1. Jakiunde: Zientzia, arte eta letren akademia.



Iturria: eitb.eus



Honoris Causa doktorea izendatu zaitu aurten berean Valentziako Unibertsitateak. Izendatze ekitaldian egindako hitzaldian «matematikoki frantziarra» zarela esan zenuen, tesia eta ibilbide akademikoa Frantzia egin...

Frantziako gobernuaren laguntza batekin joan nintzen Parisera 1978an, eta nahiz eta lehen ikasturtean bakarrik eskolak hartu behar nituen, jadanik zain neukan tesi zuzendaria. Lehen urte hura zaila izan zen, hango klaseak ondo eramateko hutsune asko baintuen. Bilboko unibertsitatean egindako ikasketa urteetan beharrezko zitzaizkidan gauza asko ez nituen ikasi. Beraz, urte gogorra, lan asko egin beharrekoa. Hala ere, gauzak ondo atera zitzaizkidan eta ondoko ikasturtera, tesia egiten hasi behar nuen hartara, ondo prestatuta heldu nintzen. Bigarren urte hura hasi zenean, aurrez izendatua neukan tesi zuzendaria atzerrira joan zen urte osorako. Orduan bai, apur bat galduta ikusi nuen nire burua, baina delako tesi zuzendariak –matematikaria zen–, bere ikasle izandako bi gazterekin harremanetan jarri ninduen. Eta, orain denboran atzera begiratuta, poz-pozik nago harreman horrekin, bi haietako batekin egin bainuen lan harrezkero. Matematikari hura oso ona zen, oso problema interesgarriak ikertzea proposatu zidan eta, horrez gain, lagun handiak egin ginen.

Jakin baliteke, nola du izena zure lagun horrek?

Pierre-Louis Lions. Urte batzuk geroago Fields domina eman zioten, Nobel sariaren mailakoa! Oso zuzendari ona eduki nuen. Zorte handia! Tesia egin nuen, eta tesia amaitu eta gero, Euskal Herrira itzulian ikusten nuen nire burua, euskal matematikaren alde lan egiten. Lions-ek, ordea, azaldu zidan bere ustez goizegi zela Euskal Herrira itzultzeko, hobe nuela Parisen urte gehiago egin, are gehiago ikasi, eta, gero, maila hoberekin itzuli Euskal Herrira. Aldi berean, Frantziako CNRSn [Ikerketa Zientifikoaren Zen-

tro Nazionale] lan egiteko eskaera egin nezan eskatu zidan. CNRS Frantziako ikerkuntzarako erakunde nagusia da, aparteko lekua lan egiteko. Eskaera egin, postua lortu, eta hantxe geratu nintzen. Pentsatu nuen urte batzuk baino ez nituela igaroko, baina apurka-apurka gero eta integratuago nengoen Parisen, bai lanari dagokionez, bai eguneroko bizimoduari dagokionez ere.

«Matematika aldetik munduko hiri garrantzizkoena da Paris»

Parisen harrezkero zu.

Bai, bada! Paris hiri ederra da, oso interesgarria, eta zientzia aldetik ere egokiegokia. Alegia, matematika arloan munduko hiri garrantzizkoena da, dudarik ez horretan! Matematikari asko ari gara lanean Parisen eta inguruan, mila baino gehiago bai, eta maila benetan jaso erakusten da matematikaren arlo guztietan; edo ia guztietan, behinik behin. Parisen matematikari lana egitea aukera bikaina da.

Parisa baino lehen, zelan gogoratzen dituzu Bilboko unibertsitate garaiak? «Inguru konplikatu» izan zela esan zenuen Valentziako unibertsitatean egin zenuen hitzaldian...

Bilboko unibertsitatea oso berria zen. Irakasle aldetik ere denetatik zegoen,

baziren irakasle onak eta baziren txarrak ere. Programa, berriz, arraro xamarra zen: ez zegoen tradizioz, eta, bestalde, inprobisazioa zen nagusi alde guztietatik. Argi zegoen, hasiera-hasieratik, lehen ikasturteko ikasle batentzat ere, irakasleen maila, oro har, ez zela ona. Bai, baziren irakasle on batzuk, baina, oro har, ez ziren oso onak. Dena zen berria, eta irakasleak saiatzen ziren bere lana ahal zuten ondoen egiten, zekiten ondoen betetzen seguru aski, baina hala ere...

Egoera politikoa ere zaila zen, frankismo osteko trantsizio garaia. Irakurri dudanez, zuk konpromiso politiko eta kulturala zenuen ordurako. Zertan ari zinen, zehazki?

Urte latzak izan ziren. Manifestazio asko egiten ziren sasoi hartan, polizia behin baino gehiagotan sartu izan zen unibertsitate campusean, greba-egunak ere ez ziren gutxi... Aldi berean oso giro ona osatu zen zenbait elkarteren inguruan. Bestalde, argi zegoen bide handia egin behar zela Euskal Herriko Unibertsitatea eratzeke. Ilusio handia genuen, proiektu asko, eta jendearen borondate handiarekin –besterik ez baikenuen–, ahal izan genuena egin genuen, ahal izan genuen moduan. Esate baterako, oso ondo gogoratzen naiz laugarren urtean nengoela irakasle batek deitu ninduela eta esan zidala: «Arduratuta nago. Oso ikasle ona zara, eta politika lan askotan sartuta ikusten zaitut. Beldur naiz, uste dut denbora gehiegi ematen duzula saltsa horietan, ez duzula denbora hori ikasteko erabiltzen. Horrela segitzen baduzu, zure notak jaitsi egingo dira!». Barre egin nuen, eta beldur ez izateko esan nion, nota onak ateratzen segituko nuela, eta hurrengo azterketan frogatuko niola. Eta horrela izan zen.

Espainiako Trantsizio garai hura ezbaian da beti. Militarrek zainduta egin zela esaten da, adibidez. Zein balorazio egiten duzu Trantsizioaz, orduan eta orain?

Momentu hartan beldur ginen militarrek matxinatuko ote ziren, estatu-kolpea eman ahal zutelako! Kontua da frankismo garaian sarraskiak egin zituzten zenbait pertsona euren postuetan gelditu zirela. Nire ustez hori ez zen oso gauza ona etorkizuna eraikitzeko.

Matematika ikerketan aurrera egin nahi eta atzerrira joan behar izan zenuen. Zure kasua adimenen ihesaren adibide ote den nago.

Euskal Herriko Unibertsitatearen alde lan egiten ari nintzen garai hartan, eta poz-pozik nengoen. Bestalde, matematika ere asko gustatzen zitzaidan. Egia esan, momentu horretan atzerrira joatea Euskal Herriko Unibertsitatearen alde lan egitea iruditu zitzaidan. Neure burua prestatzera nindoan, gehiago ikastera... Adimenen ihesa nire kasua? Sasoi hartan Euskal Herrian ez zegoen modurik ondo prestatzeko, tesi on bat egiteko. Adimen ihesik ez, beraz. Nire kasuan, behar hutsa zen. Orain, aldiz, erabat ezberdina da egoera. Matematikako tesi on bat egin nahi izanez gero, Euskal Herrian bertan egin ezinik ez dago, matematikari bikain batzuk baitaude.

Zu Parisera joan zinen urte berekoa da, 1978koa, UZEIren Matematika hiztegia. Bertan esku hartu zenuen zuk.

Unibertsitatean matematika irakatsi behar bazen, lexiko berria behar zen. Ez genekien nola esan hainbeste gauza. Ikas-toletan egindako lan handia oso ona zen, balio zuen unibertsitatera heldu arte. Baina, handik aurrera, unibertsitateko ikasturteetako irakasgaietan, nola deitu behar ziren hainbeste gauza? Matematikan ez ezik, egoera bera zen zientziaren arlo guztietan. Eta horrelaxe hasi ginen Fisika, Kimika eta Matematika hiztegiak prestatzen. Hego Euskal Herrian, garai hartan, bi lekutan zegoen hori egin ahal izateko jendea: batetik, Donostian, Elhuyarren inguruan; bestetik, Leioan, Zientzia Fakultatean. Eta bi taldeak elkarrekin hasi ginen lanean.

Nor eta nor zineten lanean?

Leioan pertsonarik garrantzitsuenak Jo-xerra Etxebarria izan zen, berak jarri gintuen gu guztiok lanean. Bere aholkuak zeharo garrantzitsuak izan ziren guztiontzat. Euskal Herriko Unibertsitateko giroa ere oso garrantzitsua izan zen urte horietan. Esate baterako, oso ondo gogoratzen dute matematikan talde bat Leioan. Alde batetik, Javi Duoandikoe-txea, gu baino zaharrago, matematika zientifikoaren arloan lanean oso arin hasi zena. Beste aldetik, nire ikasturtean edo hurrengoan, neska talde bat eratu zen, eta hiztegien proiektuan sartu ginen: Edurne Biritxinaga, Bego Carrascal, Mari Karmen Castillo, Mari Jose Zarate eta ni neu. Bestalde, Mikel Zalbidek egiten zituen gure lotura lanak Elhuyarrek zein UZEIrekin. Jende asko ginen, ilusio handiz lanean.

Arestian esan diguzunez, Frantziako gobernuak ikerketa-beka eman zizun 1978an eta, hurrena, berriz, CNRSk lanaldi osoko ikerlari kontratua eskaini zizun. Zein da zure ikerketaren gaia matematikaren barnean?

Nire lan arloak deribatu partzialak dira, Analisi arlo nagusiaren azpiarloa. Ekuazio horiek era natural batean agertzen dira hainbat gertakari fisiko deskribatu behar direnean. Beraz, oso garrantzitzekoak dira fisikan, kimikan, eta, azken urte hauetan, baita biologian eta beste hainbat arlotan ere. Ekuazio horiek ondo ulertzea eta beraiei ebazpenak aurkitzea, zehatz-mehatz nahiz gutxi gorabehera, garrantzi handikoa da. Horri dago-kionez, fisika eta kimika kuantikoaren hainbat ekuazio ikertzen ditut nik.

CNRSko ikerlariak –munduan beste inork ez bezala–, unibertsitate sailetan egiten duzue lan.

Bai, guk unibertsitateetako departamentuetan egiten dugu lan. Hala ere, ez dugu zertan klaserik eman. Nahi izanez gero, eman ahal ditugu, baina ez da nahitaezkoa. Horrek askatasun handia


«Atzerrira joatea Euskal Herriko Unibertsitatearen alde lan egitea iruditu zitzaidan»

ematen digu, desabantailak ere badituen arren. Esaterako, lanak aurrera egiten ez duela sentitzen duzunean zaila da aurrera egiten saiatzea. Horma baten aurrean bazeunde bezala da. Abantailarik ere badugu, postua pertsonala baita, geurea, eta unibertsitatez aldatzeko aukera eskueran dugu.

Esan diguzu aparteko lekua dela Paris matematikaren arloan lan egiteko.

Zalantzarik ez! Frantzia oso herri garrantzitsua da matematikan. Agian ez da munduan lehena izango, AEBak dira lehenak, baina hura askoz ere herrialde handiagoa da. Baina, bestela, biztanle kopuruen ezberdintasun handi hori kontuan hartuta, agian, Frantzia da lehenengoa. Bestalde, Frantziako unibertsitateen artean, Pierre et Marie Curie unibertsitatea lehenetarikoa da munduan zientzia arloan, eta Jacques-Louis Lions departamentua, berriz, lehenetarikoa mundu mailan matematika aplikatuan. Hortaz, oso ingurune egokian hasi nintzen ikasten eta lan egiten.

«Diziplina anitzeko taldeak behar dira teknologia berrietako problema zailak ebazteko»



Matematika problemak ikertu dituzu fisika eta kimika kuantikoan aplikatuak, eta solido eta fluidoen arteko elkarreraginak ere aztertu dituzu. Zure espezialitateak ei dira ekuazioen teoria deribatu partzialetan, eta fisika matematikoa. Oinezkook zer ulertu beharko genuke hitz salda horretan?

Matematika fisikaren hizkuntza da, fisikako problema guztiak matematika ekuazioen bidez idazten dira. Ekuazioak ulertzea zaila da, baina adibide bat ipiniko dizut, uler dezazun: hegazkin berri bat egiteko, edo airean nola altxatzen den eta nola egiten duen hegan ulertu ahal izateko, ekuazio horiek ikasi behar dira. Eta telefono modernoak egiteko ere bai, eta enpresa handi bat nola antolatu erabakitze ere bai, logistika hori guztia diseinatzeko nahitaezkoak dira matematika ekuazioak.

Oroz gain, matematikaren aplikazioa izan duzu helburu. Zein rol jokatzen dute matematikak gure gizartearen ekonomia-garapenean?

Gero eta handiagoa! Hala ere, matematikariek ez dute bakarka lan egiten, baizik eta fisikari, ingeniari edo biologoekin batera. Diziplina anitzeko taldeak behar dira teknologia berrietako problema zailak ebazteko. Enpresa handietan, esaterako, gero eta matematikari gehiago dauzkate, edo eurekin lan egin dute zenbait proiektu konkretutan. Orain, adibidez, asko hitz egiten da datari buruz edota adimen artifizialaz, eta hor ere edonon agertuko zaizu matematika.

Irakurria dizudanez, teknologia garapenaren bidean baitezpadako tresna omen da matematika. Erresuma Batuan eta Holandan, esate baterako, goi-mailako matematikak Barne Produktu Gordina-ren % 15 omen dira. Frantzia, berriz, % 10.

Horrek esan nahi du herri horien BPG-ren ehuneko esanguratsu hori lortu dela matematika era garrantzitsu batez erabili delako. Alegia, matematikariek edo ma-

tematikaririk gabe, diru hori ez zen sartuko herrialde horietako kutxetan.

Kolaborazioak dituzu beste zenbait matematikari eta zientzialarirekin. Nahitaezkoa da elkarlana?

Nahitaezkoa ez, baina oso garrantzitsua bai. Zenbait matematikariek bakarka egin ohi du lan. Nik ere neure bidean batzuetan horrelaxe egin dut lan, bakarka. Hala ere, azken urteotan ez. Alde batetik, asko gustatzen zait besterekin lan egitea, problema zail bati begi ezberdinekin begiratzen diogunean ideia hobeak ateratzen direlako. Bestalde, kolaboratzaileak jatorrak direnean –eta jende jatorrarekin lan egiten saiatzen naiz ni–, plazer handia izaten da haiekin eztabaidatu eta denbora konpartitzea. Niretzat bereziki garrantzitsuak dira gaur egun kolaboratzaileak, saltsa askotan, gehiegitan, sartuta nagoelako. Beraiekin hitzorduek dauzkadanez, behartuta nago elkarrekin ikertzen ari garen problemetan lan egitera. Bestela, haiekin hitzordurik ez banu, edo halako premiarik ez banu, erraz emango nuke denbora osoa bestelako gauzak egiten.

Saltsa askotan sartuta zaudela esan diguzu oraintxe. Esaterako, ICIAM Matematika Industrial eta Aplikaturako Nazioarteko Batzordeko presidente zaitugu, 2013an...

Lehia estua izan zen. Bi hautagai ginen: bata, txinatarra, oso ezaguna eta botere handikoa; bestea, ni. Pekinen egin zenez hautaketa, Txinako eta Asiako herrialdeetako jende gehiago zegoen han botoa emateko. Ez zegoen jakiterik nor aterako zen presidente, baina neuk irabazi nuen botazioa.

ICIAMeko buru, 2019an egingo den matematikari aplikatuen mundu biltzar gorenari begira jarria zaude. Zertan ari dira matematikariak lanean gaur egun? Bistan denez, ICIAMen inguruan dauden matematikariek aplikazioetan egiten dute lan. Matematikaren arlo ezberdine-

tan lanean, baina betiere kontuan harturik zer nolako problemak ebatzi nahi diren zientzia ezberdinetan, baina baita gizartearen arlo askotan ere, dela ekonomian, komunikazioetan, medikuntzan... Hau da, arlo askotako problemak ebazteko egin behar den matematika lantzen ari dira matematikariak gaur egun.

Ekonomia, medikuntza, komunikazioa... gizarte-gaiak dituzu oroz gain, teoriko hutsak baino areago.

Gero eta lotura estuagoa dagoelako zientziaren eta gizartearen artean. Gizartearen ongizatea zientziari lotua dago sarritan, jende askok ez dakien arren. Zientzia, azken finean, gure mundua hobetzeko egin beharko litzateke, ezta? ■

«Gizartearen ongizatea zientziari lotua dago sarritan, jende askok ez dakien arren»

HEMENGOA

«Ni euskalduna eta Euskal Herrikoa sentitzen naiz, hori da nire benetako izaera. Jakina, beste herri batzuetako ohiturak eta gustuak ere baditut, baina ni Euskal Herrikoa naiz. Lotura handia gorde dut beti Euskal Herriarekin, batez ere familia eta lagunei esker. Eta berriak ere segitzen ditut, ahal dudan heinean, behintzat. Bestalde, Euskal Herriko zenbait elkarte eta erakundetan ere esku hartzen dut, bai Jakiunden, bai Eusko Jaurlaritzaren aholkularitza batzorde batean, BCAM Matematika Aplikatuaren Euskal Zentroaren batzorde zientifikoan... Eta joan ere, sarritan joaten naiz Euskal Herrira, oso gustura gainera! Kar, kar...».

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOA: Ipar Euskal Herriko lehen erakunde publikoa

MAITE ORUE
KAZETARIA




Euskal lurraldeak bildu eta berezko identitatea ematen dien lehen instituzio politikoa eratu dute Ipar Euskal Herrian: Euskal Hirigune Elkargoa, *Communauté Pays Basque*. Hutsuneak hutsune, herritarren eskaerei erantzuna emateko pausoak ematen ari dira. Baionan du egoitza.

2016ko maiatzaren 3an erakunde hori eratzeke bi baldintzak bete ondoren, urtarrilean sortu zen Euskal Hirigune Elkargoa, Frantziako Gobernuaren prefetaren aginduz. Hain zuzen, elkargoa sortzeko baldintzak honako hauek ziren: biztanleriaren erdia (147.916 biztanle) ordezkatzeko zuten herrien erdiek (79 herri) sorreraren aldeko botoa eman behar zuten. 2016ko apirilean jada bi baldintzetako lehenbizikoa bete zen, hots, biztanleria osoaren erdiak baiezkoa ematearen langa gainditzea (149.390 biztanle baina oraindik 64 udalerri).

2017ko urtarrilaren 23an, Euskal Hirigune Elkargoaren lehen batzar ofizialean, instituzioaren presidentea hautatzeko bozketa egin zuten, eta Jean-René Etchegaray Baionako auzapezak jaso zuen boto gehien. Gotaine-Irabarneko Bernard Lougarot auzapez zuberotarra eta Angeluko hautetsi komunista Jean-Jacques Doyhenart ziren Euskal Elkargoaren presidentetzarako beste bi hautagaiak.

Euskal Hirigune Elkargoak 300.000 biztanle biltzen ditu, eta Ipar Euskal Herriko lehen erakunde publikoa da, Frantziako iraultzaz geroztik. Ipar Buru Batzarreko buru den Pako Arizmendiren esanetan, «gure lurraldeari, gure nortasun kolektiboari atxikia daudenentzat, onarpen politiko bat da» erakunde berria. Ipar Euskal Herriko biztanleen bizi kalitatea hobetzeko eskaerari erantzun nahi dio, lurraldeen arteko desorekak landuz bereziki. Hori zen, hain zuzen, elkargoa sortu zuteneko erronketako bat: itsasaldearen eta barnealdearen arteko udalerrien arteko oreka lortzea, eta, horretarako, elkargo berriak eraginkortasuna eta malgutasuna uztartu beharko ditu. Arizmendik dioenez, «kostaldeak aberastasunak biltzen ditu, baina jendearen kontzentrazioak bizi kalitatea baldintzatzen du, bereziki eguneroko ibiltze zailtasunetan edo bizitegien erosketeko prezio garestiegietan». Barnealdean, bestalde, Behe-Nafarroa eta Zuberoa



jendez husten ari direla dio, biztanleria zahartuz doala, eta aberastasun gabezia dagoela, gainera. Hala, Ipar Euskal Herriko Elkargo amakomuneko proiektu bat bultzatzeko ezinbesteko ikusten du Ipar Buru Batzarrak; hau da, kostalde eta barnealdeko hautetsiak biltzen ditu, eta eman den egiturazko aurrerapausorik handiena da, Arizmendiren iritziz.

HERRITARREN ERABAKIMENA

Alabaina, Euskal Elkargoari ahultasunak ere ikusten dizkiote jeltzaleek. Izan ere, gaurko legediaren arabera, elkargo horren hautetsiak ez dituzte herritarrek zuzenki hautatuko. «Herrien ordezkariak dira bakarrik» —zehaztu du Ipar Buru Batzarreko buruak— «eta egoera hau ezingo da luzatu. Tokiko proiektu garrantzitsuenaren mailan, herritarrengandik botere zuzena duten hautetsiak izan behar dira.

Ipar Euskadi mailako proiektu hau herri-tarren kontrolpean izan behar da. Horrela, hauteskunde kanpaina bat izanen da, Ipar Euskal Herri mailako hautagaien programa ezberdinekin. Eta, gero, programa horien gauzatzearen zainketa herritarren gain izan behar da. Gaur, gure ustean, hor dago hutsune handiena».

Lurralde Kolektibitateari dagokionez, 2013. urteaz geroztik bat egin dute Ipar Euskal Herriko eragile ezberdinek, eta Frantziako Gobernuak ohartu zen sentimendu eta eskaera horri nolabaiteko erantzuna eman behar ziola. Horretarako, lau aukera proposatu zituen; Euskal Elkargoa horien artean. Arizmendik azaldu duenez, «Frantziak deszentralizazioari buruzko erreforma baliatu du Euskal Herritarren hogeitauko aldarrikapenei erantzun bat emateko. Hogeitauko departamenduaren eta euskal

elkargo berezi baten aldarrikapenik izan ez balitz, Frantziak ez luke irtenbide hori proposatuko». EAJko kidearen iritziz, Frantziako estatuak erronka bat proposatu die euskal hautetsiei eta, euskaldunek, erronkarako prest egoten diren heinean, erantzun hoberena eman diote euskal elkargo horren alde kopuru handian bozkatuz. «Guretzat, hastapen bat baizik ez da. Estatuak hori badaki».

Hastapenak hastapen, ibilbide luzea dute oraindik Ipar Euskal Herrian. Elkargoa ez da lurralde elkargo bat, departamendu edo eskualdeetan bezala, hautetsiak ez baitituzte zuzenean hautatzen. Erakunde autonomoa ere ez da, departamendu baten azpiko mailan dagoelako. Beraz, Ipar Buru Batzarraren iritziz, ezin daiteke Euskal Autonomia Erkidegoaren parean jarri. Besteak beste, Euskal Elkargoak eskumen asko beste erakunde batzuekin kudeatu beharko ditu; adibidez, garapen ekonomikoa Akitania eskualdearekin kudeatu beharko du. Gainera, ez dauka legeak egiteko gaitasunik.

Bestalde, Frantziako testuinguruan, puntu positibotzat jo behar da aurrekontua; gutxi gorabehera, 295 milioi euroko aurrekontua du (ia 1.000 euro biztanleko). Dena den, hori ere Eusko Jaurlaritzak dituen datuetatik nahiko urrun gertatzen dela kexu da Ipar Buru Batzarreko burua. Izan ere, Jaurlaritzak 11.000 milioi euroko aurrekontua du (5.200 euro biztanleko).

ESKUMENAK


Euskal Elkargoaren egitura malgua eta ebolutiboa da. Legeak, gaur egun, derri-gorrezko sei eskumen aitortzen dizkio, eta zortzi izan daitezke bi urte barru. Arizmendik dioenez, «eskumen delegazio mekanismoari esker, departamenduaren, eskualdearen eta Estatuaren eskumenak bereganatzen ahalko ditu. Beraz, indartzen ahal den erakunde bat da. Hori oso garrantzitsua da, bereziki Ipar Euskadiren kasu bereziari begira, gaurko botere

maila ez baita aldarrikapen historikoen heinean».

Era berean, euskara eta kulturaren eskumenak ere bere gain hartu ditu. Hala ere, euskal hizkuntza ez da ofiziala izango Ipar Euskal Herrian, Frantziako Konstituzioak ez duelako onartzen. Auzitegiek diote herritarren zati bati eskubide bereziak ematen zaizkiola, eta, beraz, herritarren arteko berdintasuna hautsi egiten dela legearen aurrean. Jeltzaleen ustez, baina, ez dituzte kontuan hartzen herritarren behar bereziak, beste batzuek ez dituztenak. Arizmendik argi dio: «Gure ideia da koofizialtasunaren egoerara hurbiltzea, euskararen presentzia bermatuz, espazio publikoetan bereziki. Horretarako, EAJ-PNBk proiektu berezi bat dauka; euskararen lurralde estatutu bat

bultzatzea, alegia. Elkargo berriak estatutu hori kudea lezake, esperimentazioak eginez, erakunde publiko guziekin hitzarmenak izenpetuz, euskararen alde».

Euskal Hirigune Elkargoak bete beharreko hutsuneak ditu oraindik, eta demokrazia arazoa aipatu du Pako Arizmendik: «Lehenago aipatu bezala, hautetsien bozketa zuzena lortu behar dugu». Bozketa zuzena lortuz gero, ondorio zuzena honako hau litzatekeela dio Ipar Buru Batzarreko ordezkariak: «gaurko elkargoa, lurralde elkargo bat bilakatuko dela. Guk eskualde mailako lurralde elkargo bat nahi dugu eta aldarrikatzen jarraituko dugu. Hogei urteko mobilizazioek erakutsi dute, herritarren nahi azkar bati erantzun bat eman behar zaiola, goiz ala berant». ■



Blockchain eta haren aplikazioak administrazio publikoetan

FERNANDO CUADRADO MALASAÑA

ABOKATUA, TEKNOLOGIA BERRIETAN ADITUA


Iraultza teknologikoen teoriagileak, Alvin Toffler-ek (Toffler, 1979), *Hirugarren olatua* liburuan, aldarrikatu zuen gure zibilizazioaren aurrerabidea deskribatzen duten hiru olatuetatik iritsi berrienaren gandarrean ari garela surfean une honetan. Teoria horren arabera, Neolitikoan gertatutako nekazaritza-iraultza izan zen aurreneko olatua. Bigarrena, berriz, industria-iraultza, XIX. mendean Britainia Handian hasi eta segituan mundu osoan zabaldu zena. Eta, hirugarrena, gaur egun bizi duguna, Tofflerrek industria-ondoko gizartea deitzen duena; beste pentsalari batzuek gizarte digitala, informazioaren gizartea edo gizarte informatikoa esaten diotena.

Bloke-katearen teknologiak ikertzen dituen Melanie Swan-en arabera (Swan, 2015), hirugarren olatu horrek ekarri digun iraultza teknologikoa bost paradigmatan banatzen da, eta paradigma berri bat azaltzen da hamarkada bakoitzeko.

Lehenengo paradigma aurreko mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadakoa izan zen: zirkuitu integratuen iraultza. Zirkuitu horiei esker, *mainframe*ak edo ordenagailu handiak sortu ziren. Bigarren paradigma ordenagailu pertsonalena izan zen (PCa eta Macintosh). Hirugarrena, Interneten iraultza. Laugarrena, gailu mugikorrek eta sare sozialek ekarritakoa. Eta bosgarrena, gaur egun gertatzen ari dena, gauzen Internet da, IoT edo *Internet of Things* delakoa (Pfister, 2011): konexio deszentralizatuan dauden gailu adimendunen mundua, kriptografiaren

eta bloke-kate edo Blockchainaren teknologiaren bidez banatzen dena.

Lehengo Internetaren informazioaren Internetaren zen; oraingo berri hau, aldiz, balioaren Internet da batez ere. Orain, balioa sarearen bidez transmititzea da garrantzitsua; eta transmisio hori antzinako baliabide baten bidez egiten da, konfiantzazko hirugarren baten edo fede-emailen baten bidez, alegia (Blockchainaren iraultzak konfiantza horren ordean matematikaren ziurtasuna erabiltzea ahalbidetzen duen arte). Horrela, esate baterako, ikus dezakegu herrialde askotan nagusi den Uber autotaxien enpresak ez daukala taxi bakar bat ere jabetzan, baizik eta taxilariak bezeroekin jartzen dituela harremanetan. AirBNB, etxeak eta apartamentuak alokatzen dituen enpresa handiena, ez da higiezin jabea, jabeak



eta maizterrak harremanetan jartzeko tresna baizik. Just Eat, Ebay, Wallapop... Interneteko plataformatan eraikitako enpresak besterik ez dira, kontratatzeko interesa duten pertsonak harremanetan jartzan dituztenak eta alderdien artean konfiantza nahikoa sortzen dutenak baliotrukea ahalbidetzeko.

Hasierako Blockchainarekin, 1.0 protokolo edo teknologiararen bidez, posible izan zen bitcoina eta beste kriptotxanponak sortzea eta garatzea. 2008. urtean, «Satoshi Nakamoto» izenordearen atzean ezkutatutako pertsona —edo talde— batek txanpon bat sortzea proposatu zuen. Hainbat hamarkadako kriptografia-lanetan oinarritu zen; hain zuzen ere, bi alderdiren arteko transakzioak hirugarren (arbitro edo notario) batengana jo beharrik gabe egiaztatzeko arazoa konpontzea bilatzen zuten lanetan. Txanpon horren oinarritzat puntuz puntu elkarrekin lotutako nodoetan banatutako datu-base bat proposatzen zuen; nolabaiteko kontabilitate-liburu deszentralizatu bat, non administratzaileek («meatzari» deituak)

egindako lana bitcoinekin sarituko babilizateke, sistemak ezarritakoaren arabera. 2009. urtearen hasieran, S. Nakamotok bitcoinaren iturburu-kodea argitaratu zuen, eta aurreneko bitarrak konpilatzea lortu. 2010eko maiatzaren 22an, Laszlo Hanyecz izeneko programatzaile batek lehenengo transakzioa egin zuen bitcoinak erabiliz; pizza pare bat erosi zuen 10.000 bitcoinen truke. Gaur eguneko trukean, 40.000.000 euro inguru da hori. Handik aurrera, bitcoina gorantz hasi zen bizkor-bizkor, nahiz eta traba batzuk ere izan zituen teknika eta kontzeptu berria baitzen. 2013ko azaroan, 1.000 dolarretik gorako prezioa izatera iritsi zen eta ontza bat urrerekin parekatu zen.

Blockchain edo bloke-kate bat kontabilitate-liburu digital bat besterik ez da, bitcoina sortu zenetik txanpon horrekin egiten diren transakzio guztien oharrek biltzen dituen liburu nagusi erraldoi bat (Tapscott & Tapscott, 2016). Haren ezaugarri nagusia da datu guztiak puntuz puntu banatuta dagoen datu-base batean

antolatuta daudela; hau da, erreplika edo kopia pila bat daude, nodo izenekoak, Interneten bata bestearekin lotuta, *peer-to-peer* edo puntuz puntuko teknologiararen bidez. Gaur egun laurogei mila inguru nodo daude.

Transakzio bat egin dela esaten dugu bitcoinen titular batek bitcoin horien titulartasuna beste erabiltzaile bati transmititzen diotenean. Transakzioa egiterakoan, transakzio hori sarera konektatutako nodo guztietara zabaltzen da, batetik bestera punpa eginez, denetara iritsi arte. Nodo horien titularrei meatzari deitzen zaie, eta, haien jardunari bitcoinen meatzaritza.

Transakzio guztiak testu lauan gordezten dira, aurreko blokean jaso ez diren transakzio guztiak biltzen dituen bloke-kateko bloke batean. Transakzio horiek bloke baten barruan daudenez, ezeztazinak dira, eta ezin dira ez ezabatu eta ez aldatu, haien blokearen gainean beste bloke batzuk idazten direlako. Transakzio bat aldatzeko, bloke-kate osoa aldatu beharko litzateke, bloke bakoitza hurrengoari lotuta egoten baita sinadura digitalako tekniken bidez, kriptografia sendoa erabiliz. Bestalde, bloke-kateak edonork ikusi eta ikuska ditzakeenez, guztiz gardanak dira hirugarrenentzat.

Bloke bat sortzen den bakoitzean, nodotako ordenagailu guztiak gero eta konplexuagoa den matematika-problema bat ebazten jartzen dira. Problema hori diseinatzan da bitcoin-sareko nodoren batek batez beste hamar minutuan ebatzi dezan. Meatzarien nodo batek problema ebazten duenean, bloke bat sortzen du, eta, ikusi dugun bezala, aurreko blokea sortu zenetik egin diren transakzio guztiak sartzen

ditu bertan. Gero, blokea zer egun eta ordutan sortu den adierazten duen sinadura digital batekin zigilatzen du, eta aurreko blokeei eranstean die bloke berria. Horrez gain, beste bloke bat sortu dela jakinarazten dio sare osoari, hau da, bloke-kateari transakzio gehiago erantsi zaizkiola. Meatzariek berehala ekiten diote jarri berria den blokearen gainean joango den blokea eratzeko prozesuari. Nodoren bat tranpa egiten eta transakzio faltsuekin bloke-kate bat egiten saiatzen bada, bloke-katea eraikitzen ari diren gainontzeko nodo zintzoei tranpetan harrapatu eta alde batera utziko dute nodo hori; egiazko kateari eutsiko diote, eta haren gainean beste bloke batzuk jartzen jarraituko dute.

Blockchain 2.0a kriptotxanponentzako kontabilitate-liburu bat baino gehiago da; *Smart contracts* edo kontratu adimendunak gordetzeko diseinaturik dago. Kontratu adimendun horiek kontratuetako baldintzak exekutatzen dituzten protokolo informatikoak besterik ez dira. Hau da, gizakien hizkuntzan idatzita egon beharrean ordenagailuentzat ulergarria den programazio-lengoaian idatzita dauden kontratuak dira. Exekutatze edo interpretatzeko ez dute gizakien esku-hartzerik behar; automatikoki exekutatzen dira gertakari bat gauzatzen denean edo data jakin bat iristen denean. Melanie Swanek, goian aipatutako lanean, hiru ezaugarri aipatzen ditu kontratu adimendunak kontratu arruntetatik bereizten dituztenak: autonomia, autosufizientzia eta deszentralizazioa.

Blockchain 3.1ekin, bloke-katearen erabilera ez da mugatzen finantza-zerbitzuetara, beste arlo batzuetan ere erabili daiteke: gobernu-administrazioan, osasun-

arloan, komunikabideetan, artean eta justizia-administrazioan, besteak beste.

Teknologia honek pizten duen interesaz eta mundu-mailan hartu duen garrantziaz jabetu gaitezke hura aztertu eta bultzatzeko eraturako bi partzuergoak aztertzen baditugu. Lehenengoa Hyperledger Project delakoa da; The Linux Foundation-ek babesten du, eta besteak beste Accenture, American Express, IBM, J. P. Morgan, Intel edo Samsung enpresek hartzen dute parte bertan. Ezagutzen den bigarren partzuergoa R3 da (R3CEV LLC), munduko hirurogeita hamarretik gora finantza-erakunde handienetakoek osatzen dute, eta haien artean daude BBVA, Banco Santander, ING eta Barclays.

ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN, ZER?

Blockchain teknologia garrantzi handiko gauza askotarako erabili daiteke administrazio publikoan. Hauek dira erabilera garrantzitsuenak:

- **Dokumentazioaren eta fitxategien kudeaketa:** Dubain, gobernuak Blockchain batera pasatuko ditu bere dokumentu guztiak 2020an. Horrela, papezko dokumentuak erabiltzeki utziko dio. Kalkuluen arabera, Dubaiko gobernuak urtean 25 milioi lan-ordu aurreztuko ditu, ez baititu biltegitatu, kudeatu eta berreskuratu beharko papezko dokumentuak.
- **Herritarren segurtasuna:** Australiako polizia bere agenteek grabatutako bideoak Blockchainen gordetzen hasi da. Horrela, grabazioak zer egun eta ordutan egin dituen frogatzea lortuko

du, eta grabaketa horiek ezin ezabatzeko eta manipulatzeko bermatuko du.

- **Tributuen kudeaketa:** Txinako gobernuak tributuko eta faktura elektronikoko kudeatzeko Blockchain teknologia erabiliko zuela adierazi zuen 2015eko Informatizazio Plan Nazionalan.
- **Hauteskunde-prozesuak:** hauteskunde-prozesuak gardenak dira Blockchain teknologiari esker, botoa modu erabat pribatuan ematen da eta ezinezkoa da emaitzak faltsutzea edo aldatzea.
- **Hirigintza adimenduna:** Stefan Junstrand arkitektoak honako hau dio hirigintza adimendunaren gainean: «Hiri adimendun garapenean Blockchain erabiliz, zeharkako plataformak komun bat izango dugu. Plataformak horrek hiriko zerbitzu desberdinak konektatuko ditu, eta gardentasun eta segurtasun handiagoa emango die prozesu guztiei». ■

Aipatutako bibliografia

PFISTER, Cuno: *Getting started with the Internet of Things*. O'Reilly, Sebastopol, CA. USA 2011.

SWAN, Melanie: *Blockchain. Blueprint for a New Economy*. O'Reilly, Sebastopol, CA. USA 2015.

TAPSCOTT, Don & TAPSCOTT, Alex: *Blockchain Revolution*, Penguin, Londres, 2016.

TOFFLER, Alvin: *La tercera ola*. Bartzelona. Plaza & Janés, 1979.

Erdal hitzen deklinabidea

Euskaltzaindiaren 184. araua

IRENE FERNANDEZ

HIZKUNTZA NORMALKUNTZAKO TEKNIKARIA (IVAP)

Euskaraz, euskal hitzez gainera, erdal hitzak erabiltzen dira askotan, eta behin baino gehiagotan zalantzak sortzen zaizkigu erdal hitz horiek deklinatzerakoan.

Euskaltzaindiaren 184. arauak erdal hitzak nola deklinatu behar diren zehazten du. Ikus dezagun zer den arauak dioena. Euskaraz erabiltzen ditugun erdaretako izen gehienak izen bereziak izaten dira: leku-izenak (*Washington*), pertsona-izenak (*Françoise Hollande*), erakunde eta enpresa-izenak (*Greenpeace*, *Boeing*), markak (*Coca-Cola*)... Baina gero eta maizago erabiltzen ditugu erdaretako izen arruntak ere; zientzia eta teknologiako hitzak gehienbat.

Izen arrunt horiek jatorrizko grafia mantentzen dute iritsi berritan: mailegu irentsigabeak izaten dira. Denboraren poderioz, grafia-aldaketa bat jaso eta etxekotu egiten dira horietako batzuk (*errugbi*, *kanpin*, *marketin*...); beste asko, ordea, jatorrizko grafiari eutsita hiztegitratzen dira (*yuppie*, *sandwich*, *cowboy*, *copyright*...).

DEKLINATZEKO ZALANTZA SORLEZAKETEN ERDAL HITZAK

Erdal grafia duten hitzen azken fonema (hotsa) kontsonantea edo bokala den argi dagoenean, euskal hitzak bezala deklinatzen dira. Arazorik ez, beraz.

Pertsona-izenak:

- Kontsonantez amaitutakoak: *Albert Einstein*, *Ana Frank*, *Karl Marx*... → *Kattalin* bezala deklinatzen dira (hau da, *Kattalinekin*, *Kattalinekin*, *Kattalinengana*...).
- Bokalez amaitutakoak: *Pier Paolo Pasolini*, *Rabindranath Tagore*... → *Koldo* bezala deklinatzen dira (*Koldok*, *Koldorekin*, *Koldorengana*...).

Leku-izenak:

- Kontsonantez amaitutakoak: *Kiev*, *Budapest*, *New York*... → *Gasteiz* bezala deklinatzen dira (*Gasteizen*, *Gasteizetik* edo *Gasteiztik*, *Gasteizera* edo *Gasteiza*, *Gasteizeko* edo *Gasteizko*...).
- Bokalez amaitutakoak: *Otawa*, *Zimbabwe*, *Katmandu*... → *Baiona* bezala deklinatzen dira (*Baionan*, *Baionatik*, *Baionara*...).

Izen arruntak:

- Kontsonantez amaitutakoak: *croissant*, *kayak*, *western*... → *haran* bezala deklinatzen dira (*haranean*, *haraneko*, *haraneraino*...).
- Bokalez amaitutakoak: *walkie-talkie*, *kiwi*, *swahili*... → *mendi* bezala deklinatzen dira (*menditik*, *mendira*, *mendiko*...).

Alabaina, jatorrizko ahoskerako azken fonema ez datorrenean bat amaierako grafemarekin (letrarekin), zalantza sor dakiguke: zer hartu behar dugu kontuan deklinabide-atzizkia eransteko orduan, ahoskera ala idazkera? Nola deklinatu behar ditugu *Shakespeare* [xekspir], *Google* [gugel] edo *Calais* [kale] hitzak?

Ahozkoan, ahoskera jatorra zein den jakinez gero, huraxe hartu behar da oinarritzat jakiteko bokalez edo kontsonantez amaitutako hitza den, eta horren arabera ezarri behar zaio dagokion deklinabide-atzizkia.

- [xekspirren, xekspirrek]
- [gugelen, gugelek]
- [kaleren, kalek]

Idatzizkoan, letra da oinarria, eta deklinatzeko orduan letra hartu behar da kontuan. Horrek duen abantaila da ez dela beharrezkoa jakitea nola ahoskatzen den hitza. Hitzaren azken letra kontsonantea edo bokala den kontuan harturik, euskal hitza balitz bezala deklinatuko dugu.

- *Shakespeareren/Shakespeare-ren*;
Shakespearek/Shakespeare-k
- *Calais-en/Calais-en*; *Calaisek/Calais-ek*
- *Googleren/Google-ren*; *Googlek/Google-k*

Erdal hitzaren eta deklinabide-atzizkiaren artean marratxoa jartzea aukerakoa da¹.

h, y edo w LETRAZ AMAITUTAKO HITZEN DEKLINABIDEA

h, *y* edo *w* letraz amaitzen diren hitzen deklinabidea berezia da, euskaraz ez baitago letra horiekin amaitzen den hitzik. Zein irizpide jarraitu behar dugu orduan horrelako hitzak deklinatzeko?

h letraz amaitzen diren erdal hitzen kasuan, hatxe horren aurreko letra izango da kontuan hartuko duguna: bokala bada, bokalez amaitutako euskal hitzen modura deklinatuko dugu hitza, eta kontsonantea bada, kontsonantez amaitutako euskal hitzen modura.

- *Allahren/Allah-ren*; *Allahk/Allah-k*
- *Flasharen/flash-aren*; *Flashak/flash-ak*
- *Elizabethen/Elizabeth-en*; *Elizabethek/Elizabeth-ek*

-ah amaiera duten hitzetan, ez da kontuan hartzen *-a* letraz amaitutako hitz arruntak deklinatzean gertatzen diren $a+a=a$ eta $a+e=e$ aldaketak.

- *xah* → *xaha/xah-a*, *xahak/xah-ak*, *xahen/xah-en*, *xahei/xah-ei*...

y eta **w** letraz amaitzen diren erdal hitzak bokalez amaitutako hitzak bezala deklinatzen dira, *i* eta *u* bokaltzat hartzen baitira letra horiek deklinazio kontuetarako.

- *Ferrya/ferry-a*
- *Kennedyren/Kennedy-ren*
- *Bungalowtik/bungalow-tik*
- *Showko/show-ko*
- *Glasgowra/Glasgow-ra*

1. Euskaltzaindiaren oniritzia duen *Ortotipografia* liburuan gomendatzen da izen berezien kasuan, beharrezkoa ez denean, marratxorik ez erabiltzea.

Baja eman

KATTALIN MINER



Leire nazkatuta dago, haserre begiratu du telefonoaren faktura, eta ondoren Internetarena, eta azkenik xehetasunetan tabletarena. «Nola liteke?». Duela lau hilabete deitu baitzioten dena bateratzeko eskaintza eginen, dena baitzen abantaila, eta bateratze hutsarekin «ezeren truke» ordainpeko telebista ere opari. Bere burua madarikatu du «ordainpeko Leire, or-dain-pe-ko, nola izango zen bada musutruk?».

Haserretu egin da bere etxeko sukaldean, oraindik kafea hartu ez badu ere, zainak irakiten. Beste edozerk ez, baina iruzurrrak sutan jartzen du. Telefonoa hartu du, egitera doana bitan pentsatu gabe: baja emango du konpainian. Telefonoaren baja, Internetarena, tabletarena eta ustez doanik zen ordainpeko telebistarena. Informazio-zenbakia sakatu du. Tonua. Musika. Ahots errobotikoa. «Zure fakturen berri jakin nahi baduzu, pulsta 1; gure eskaintzen berri izan nahi baduzu, pulsta 2; Internetarekin arazoak badituzu...». Leire sukaldean dabil mugikorra lepoan hartuta, kaferako esnea berotzen ari dela eta ez ditu eskaintzak ongi entzun, beraz, 4 sakatu du.

«Zure terminala berritu nahi duzu». Kaka. «Ez! Ez dut terminala berritu nahi, operadore batekin hitz egin nahi dut! O-pe-ra-do-re!». «Ez dizut ondo ulertu, errepikatu mesedez». Esnea irakiten hasi da kazolan, eskura erori eta erredura

sortu dio, konturatu denerako, eskua ur azpian, ahots errobotikoa berriz hasi da: «Zure fakturen berri jakin nahi baduzu, pulsta 1...». Honetan, amaierara arte entzun du aukera sorta eta azkenik «bestelakorik nahi baduzu, pulsta 7», 7 beraz.

«Segituan pasako zaitugu operadore batekin, itxaron apur bat, mesedez». Musika gorrotagarria. Salan eseri da, kafesnea eta gailetak eskuan. Piniminimini... Bozgoragailu eran jarri du mugikorra eta gosaltzeari ekin dio. «Segituan pasako zaitugu operadore batekin, itxaron apur bat, mesedez». Musika gero eta gorrotagarriagoa.

Ahoa gailitez beteta duela, «Kaixo Monica nauzu, zertan lagundu zaitzaket?». Leire bere intentzio irmora itzuli da eta zuzen esan dio: «baja eman nahi nuke zuekin». Isiltasun txiki bat egin da eta Monicak esan dio: «ziur zaude? Jakin nahi genuke zer dela eta egin nahi duzun hori». *Hori*. Izendatu ezin den zerbait bailitzan. Leirek lehor: «ez nagoelako gustura zuekin, eta engainatu egin nauzuelako». Monikak ahotsa goxatu du: «Bueno, ikus dezagun zerekin ez zauden gustura, guretzat garrantzitsua da bezeroak kontentu egotea, seguru konpondu dezakegula...». Leirek amua irentsi du: «Bada, eskaini zenidaten guztia gezurra da, telebista kobratzen didazue, zuek agindu bezala ez dago deskonturik...». «Ongi da, ikus dezagun zein eskaintza dugun zuretzat». Eta eskaintza hitza

entzuteaz bat, Leire zutik jarri da etxeko salan eta: «Ez! Ez dut eskaintzarik nahi! Ba-ja eman nahi dut!». Eta bospasei *ziur*?-en ondoren, Monica errenditu egin da: «Ondo da, baja departamentuarekin pasako zaitut; ez moztu, arren».

Leire lasaitu egin da, lehen froga gogorra pasata, zigarroa piztu du metara heltzeko gutxi falta zaiola pentsatuz. «Kaixo, Alberto nauzu, zertan lagundu zaitzaket?». Berrito azaldu dio dena Leirek, pausoz-pauso, arrazoiak, iruzurrak eta determinazioak. Albertok ahots lasaia dauka, aliantza moduko bat antzezten duena, bere bajarekin ezer pertsonalik ez balu bezala, laguntzeko prest balego bezala. Eta halako batean, hitz madarikatua: «permanentzia duzu ordea, 24 hilabetezkoa sinatu zenuen». Leire sutan jarri da, hain sutan Alberto bera iraintzen hasi baita, «barkatu badakit ez dela zure errua, baina...» eta halakoak tartekatuz. Hala ere, permanentziaren ordainetan dagokion isuna ordaintzeko prest azaldu da, eta bospasei *ziur*?-en ostean, «orduan, lehenengo ordainketa sailarekin pasako zaitut, ados? Ez moztu, arren».

Metaren aurreko fasean dago jada Leire, eta orduan, musika gorrotagarria hasi behar zen unean, «klok» bat aditu da telefonoaren beste aldean, eta bat-batean: «Zure fakturen berri jakin nahi baduzu, pulsta 1...».

Leirek telefonoa itzali du, eta negar egin du sofán. «Irabazi dute». ■

Ariketak98

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

I. Aukera ezazu esaldi egokia Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* kontuan hartuz:

1. a) Potemkin izena jarri diote Bilbon antolatutako zine zikloari, Sergei Eisensteinek 1925. urtean egin zuen filmeko **korazatua** gogora ekarri nahi izan dutelako.
b) Potemkin izena jarri diote Bilbon antolatutako zine zikloari, Sergei Eisensteinek 1925. urtean egin zuen filmeko **akorazatua** gogora ekarri nahi izan dutelako.
2. a) Atzoko gertakizunak direla eta, zarata egiteak fauna **aztoratzen** duela gogorarazteko esaldia gehitu zuten parkeko kartelean.
b) Atzoko gertakizunak direla eta, zarata egiteak fauna **alarmatzen** duela gogorarazteko esaldia gehitu zuten parkeko kartelean.
3. a) Ipuin lehiaketan 1.000, 700 eta 400 euroko sariak banatuko dira, eta bi **akzesit** ere emango ditugu, bakoitza 150 eurokoa.
b) Ipuin lehiaketan 1.000, 700 eta 400 euroko sariak banatuko dira, eta bi **accesit** ere emango ditugu, bakoitza 150 eurokoa.
4. a) Txartel horrekin ordainduz gero, puntuak **akumulatzen** dituzu, eta saltoki berean erosten duzun hurrengo aldian, deskontua egiten dizute edo produkturen bat oparitu.
b) Txartel horrekin ordainduz gero, puntuak **metatzen** dituzu, eta saltoki berean erosten duzun hurrengo aldian, deskontua egiten dizute edo produkturen bat oparitu.
5. a) **Asentsio-belarra** absenta eta bermuta egiteko erabiltzeaz gain, jateko gogoa pizteko eta heste-zizareak kanporatzeko erabil daiteke.
b) **Absintio-belarra** absenta eta bermuta egiteko erabiltzeaz gain, jateko gogoa pizteko eta heste-zizareak kanporatzeko erabil daiteke.
c) **Asentsio belarra** absenta eta bermuta egiteko erabiltzeaz gain, jateko gogoa pizteko eta heste-zizareak kanporatzeko erabil daiteke.
6. a) Euskal Herriko Laborantza Ganbarak mendiko **alhaguneen** kudeaketari buruzko ikastaro bat eskainiko du 2018. urteko udaberrian.
b) Euskal Herriko Laborantza Ganbarak mendiko **alaguneen** kudeaketari buruzko ikastaro bat eskainiko du 2018. urteko udaberrian.
7. a) Bidalitako dokumentuan argi azaltzen da Zuzendaritza Teknikoari dagokiola lursailaren altitudearen kotak ezartzea.
b) Bidalitako dokumentuan argi azaltzen da Zuzendaritza Teknikoari dagokiola lursailaren altituda akotatzea.
8. a) Sagar-tarta egiteko, jarrai itzazu pauso hauek: hostore-oreari pastel-krema bota, labean sartu hamabost minutuz, labetik atera eta **albarikoke**-marmeladarekin busti.
b) Sagar-tarta egiteko, jarrai itzazu pauso hauek: hostore-oreari pastel-krema bota, labean sartu hamabost minutuz, labetik atera eta **abrikot**-marmeladarekin busti.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



Ariketak 98

2. Komunikazio Elektronikoa ataleko «Loturak zertarako dira, eta nola erabil daitezke praktikoak izan daitezen?» artikuluan honako termino hauek agertu dira. Lotu termino bakoitza dagokion definizioarekin.

Nabigazio-loturak	Erabiltzaileak beste eduki batera joateko sakatuko dituen testu zatiak dira.
Hipertestu-loturak	Webgunea osatzen duten orrien arteko konexioa ahalbidetzen duten elementuak dira.
Aingura-elementuak	Bertan klikatzean, erabiltzaileari aktibatuko zaizkion orri edo dokumentuak zein diren zehazten duten helbideak dira.
Hipertestu-erreferentziak edo URLak	Irakurlea webgunetik kanpo dagoen informazio osagarri bideratzen duten elementuak dira.

Irudi hauetako loturen planteamendua egokia ala desegokia da? Zergatik?

1

Araua:

- 2006ko maiatzaren 30ko Akordioa. Gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langilek hautatzea. (EHAA, 111 zk. 2006/06/13).

<https://www.euskadi.eus/r47-bopvapps/eu/bopv2/datos/2006/06/0603031a.pdf>

☐ Egokia ☐ Desegokia

Zergatik? _____

2

- EPE 2008ko eskabideei eta horren ondorio diren hautaketa-prozesuetako probetako emaitzei buruzko datuak (PDF, 96 KB)
- EPE 2006ko eskabideei eta horren ondorio diren hautaketa-prozesuetako probetako emaitzei buruzko datuak (PDF, 601 KB)

☐ Egokia ☐ Desegokia

Zergatik? _____

3

Argitalpenen doako bertsio digitala

Argitalpen hauek doan ikus edo deskarga ditzakezu:

- Documentos de la administración. LA SOLICITUD (PDF, 2,62 MB) 2015
- Administrazioiko idazkiak. ESKABIDEA (PDF, 2,42 MB) 2015

☐ Egokia ☐ Desegokia

Zergatik? _____

4 Nabarmenduak



Identifikazio
elektronikorako
bitartekoak



Ordezkarien
erregistro
elektronikoa



Trafikoko isunak eta
zehapenak

☐ Egokia ☐ Desegokia OHARRA: irudiak lotura dira

Zergatik? _____


3. Gramatika atalean azaldu dugunaren harira, esan zeintzuk diren aukera zuzenak (gerta daiteke bat baino gehiago izatea).

1. a) Parisetik Amsterdamera joango gara gure liburu berria aurkeztera.
b) Paris-tik Amsterdam-a joango gara gure liburu berria aurkeztera.
c) Paris-tik Amsterdam-era joango gara gure liburu berria aurkeztera.
2. a) Croissant-tik ezin du jan, kalte egiten diote eta.
b) Croissantik ezin du jan, kalte egiten diote eta.
c) Croissanik ezin du jan, kalte egiten diote eta.
3. a) Greenpeace-ek nazioarte mailako kanpaina bat jarri du abian.
b) Greenpeace-k nazioarte mailako kanpaina bat jarri du abian.
c) Greenpeacek nazioarte mailako kanpaina bat jarri du abian.
4. a) Charles Baudelaire-ren lanak Théophile Gautier-ren eragin nabarmena izan zuen.
b) Charles Baudelaire-n lanak Théophile Gautier-n eragin nabarmena izan zuen.
c) Charles Baudelaireren lanak Théophile Gautier-en eragin nabarmena izan zuen.
5. a) Persiako xah-ren lehen emaztea Egiptoko errege-erreginen alaba zen.
b) Persiako xah-aren lehen emaztea Egiptoko errege-erreginen alaba zen.
c) Persiako xah-n lehen emaztea Egiptoko errege-erreginen alaba zen.
6. a) Microsoft Office-eko euskarazko programak eskuragarri daude jada.
b) Microsoft Office-ko euskarazko programak eskuragarri daude jada.
c) Microsoft Officeko euskarazko programak eskuragarri daude jada.
7. a) Calais-raino autoz joango gara, eta handik Dovernerra ferryz.
b) Calaiseraingo autoz joango gara, eta handik Dovernerra ferryz.
c) Calais-aino autoz joango gara, eta handik Dovernerra ferryz.
8. a) François-ri kritika gogorrak egin dizkiote mundu osoko egunkarietan.
b) François-i kritika gogorrak egin dizkiote mundu osoko egunkarietan.
c) François-eri kritika gogorrak egin dizkiote mundu osoko egunkarietan.
9. a) Ospe handia lortu zuen hil bezperetan egin zuen collagearekin.
b) Ospe handia lortu zuen hil bezperetan egin zuen collage-earekin.
c) Ospe handia lortu zuen hil bezperetan egin zuen collage-rekin.
10. a) Nire bungaloweko leihotik itsasoa ikusten da.
b) Nire bungalowako leihotik itsasoa ikusten da.
c) Nire bungalowko leihotik itsasoa ikusten da.

I. Aukera ezazu esaldi egokia Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* kontuan hartuz:

- | | |
|------|------------|
| 1. a | 5. a eta c |
| 2. a | 6. a |
| 3. b | 7. a |
| 4. b | 8. b |

2. Komunikazio Elektronikoa ataleko «Loturak zertarako dira, eta nola erabil daitezke praktikoak izan daitezen?» artikuluan honako termino hauek agertu dira. Lotu termino bakoitza dagokion definizioarekin.



Irudi hauetako loturen planteamendua egokia ala desegokia da? Zergatik?

- ① **Desegokia.** Hipertestu-erreferentzia (edo URLa) aingura-elementu gisa erabili delako.
- ② **Desegokia.** Ez baitira argi erlazionatu aingura-testua eta helburuko edukia: «datuak» hitza irakurrita ez baita antzematen loturaren atzean ezkututzen dena.
- ③ **Egokia.**
- ④ **Desegokia.** Irudiak lotura gisa erabili direlako. Horrek loturak ez identifikatzea ekar dezake, eta, ondorioz, haien helburua ez betetzea.

3. Gramatika atalean azaldu dugunaren harira, esan zeintzuk diren aukera zuzenak (gerta daiteke bat baino gehiago izatea).

- | | |
|---------------|------------|
| 1. a, b eta c | 6. b eta c |
| 2. b | 7. b |
| 3. b eta c | 8. b |
| 4. c | 9. a |
| 5. b | 10. c |

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



Turismo ereduaren argiak eta ilunak

MAITE ORUE
KAZETARIA

Udako hilabete bziek utzitako datuen faltan, Eusko Jaurlaritzak esan du 2017ko lehen seihilekoan milioi eta erdi bidaiarik baino gehiagok bisitatu dituztela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa; alegia, % 7,4ko gorakada egon dela iazkoarekin alderatuta. Eta ostatu-gauen kasuan ere kopuruak gora egin du, hiru milioi ostatu-gau baino gehiago erregistratu direlarik lehen seihilekoan. Zenbaki handi bezain esanguratsuak dira horiek; aberatsak batzuentzat, kezkarriak beste batzuentzat. Izan ere, bateko zein besteko iritziekin, egungo turismo ereduak eztabaidarako tarte zabalduta azken hilabeteetan Euskal Herrian zein Espainiako estatuan.





Bolo-bolo ibili da udan turismoaren inguruko aferra, euskal kostaldean masifikazioa dagoela uste baitute batzuek. Lehendik ere bazegoen eztabaida, eta baziren egungo ereduaren inguruko kezkak eta protestak ere. Aurten, alabaina, indar eta izaera bereziz piztu da jendartean, eta alderdi politikoen artean ere ika-mikak sortu dira. Iritzi ezberdinak jaso ditu turismoaren auziak, eta asko izan dira gaiaren inguruan jardun direnak. Protestak ere izan dira, turismoaren ondorio kaltegarriak salatzeke Ernaik abiarazitako kanpaina edota Donostiako alde zaharreko bizilagunek egindako mobilizazioak, esate baterako.

Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, euskal ekonomiarako sektore garrantzitsutzat du turismoa, eta nabarmendu du iraunkortasunaren estrategiatik kudeatu behar dela. Turismo Zuzendaritzak, azken finean, Euskadik turismo-kudeaketara iraunkorra eta orekatua izatea ahalbidetu nahi du; «gaualdiak areagotu (bi gauetakoa da, bataz beste) eta urtarokotasuna sailhestu», besteak beste.

Halaber, hango eta hemengo baliabide turistikoak balioan jartzea ere badu helburu Jaurlaritzak, eta baita turismo-fluxuak lurralde osoan banatzea eta herrialde-marka balioan jartzea ere. Horiek dira, esaterako, *Touring* turismoaren helburuetako batzuk, eta horiek lortzeko, zenbait ibilbide proposatzen ditu. *The Basque Route* proiektuak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan barrena ibiltzeko zazpi etapa proposatzen ditu. Guztira, 849 kilometro ditu proiektu horrek, eta hiru hiriburuak, 52 udalerri, 19 eskualde eta 100 erakargarri turistiko baino gehiago biltzen ditu. Hala ere, bada nork bere neurriko ibilbideak egiteko aukera ere *The Basque Route* webgunean. Gainera, jarduerak eta baliabideak ere aukera daitezke.

Hari horretatik, **Alfredo Retortillok, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko sailburuak**, uste du Euskadik badaukala zer eskaini itsasertzeko edo barruko paisaia eta turismo berdez aparte. Horren adibide jarri ditu, esaterako, tokiko gastronomia, museo eta bitarteko kulturalena, jaialdiena, festena... Hala-

ber, Euskadi askotariko bitartekoak dituen distantzia laburreko helmuga dela deritzo, eta horrek bide ematen duela «denbora laburrean gauza asko ezagutu nahi dituen XXI. mendeko turistaren beharrei erantzuteko».

Turismoak enplegua eta aberastasuna eragiten dituela sinetsita, Retortillok uste du une egokia dela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako turismoa hazten jarraitzeko, «jarduera ekonomikoa eta kalitatezko lanpostuak sor ditzan». Are gehiago, uste du turismoa euskal ekonomiaren sektore indartsuenetako bat bilakatu dela, eta baieztatu du krisiari hoberen eutsi dioenetakoa dela.

Bestalde, Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasunerako sailburuak ukatu egin du turismo masifikatua arazo dela euskal kostaldean, zenbait momentu eta lekutan turismo kontzentrazio arazoak sortzen direla jakin arren. Horren harira, Ernaik turismo ereduaren aurka martxan jarritako kanpaina gaitzetsi du Tapiak, eta

gazte erakundeari leporatu dio «protesta egiteko aitzakia» gisa baliatzea gaia. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko sailburuak, bere aldetik, Ernairi leporatu dio Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako turismoaren irudi distorsionatua ematea, eta ezeztatu egin du gazte erakundeak salatzen duen eredu horretan oinarritzen denik Eusko Jaurlaritza. Hala, turismo iraunkorrari buruzko eztabaidan lagungarriak ez direla kritikatu, eta bertoko ekonomiaren sektorean kalte egiten dutela nabarmendu du.

MOBILIZAZIOAK ETA PROTESTAK, HAN ETA HEMEN

Ernai gazte erakundeak manifestazioak egin zituen udan hainbat tokitan, besteak beste, Donostian, Gasteizen eta Gernika-Lumon. *Zuen turismoa, gure miseria* lelopean, masifikazioak eragindako kalteak salatu, eta prekarietatearen aurka agertu ziren gazteak, «ez turisten aurka». Gernika-Lumoko mobilizazio horren harira, Jose Maria Gorroño herri horretako alkatea kritikatu agertu zen protesta harekin, eta esan zuen Gernika-Lumok «pertsonaren eta naturaren arteko bizikidetzaren harmonikoan oinarritutako turismo plan bat baduela». Herriak, batez ere, turismo kulturala hartzen duela gaineratuz, Gorroño harro agertu zen bisitariak hartzeaz.

Ernaik deitutako manifestazioari buruzko pintadak ere egin zituzten abuztuan Basquetour-Turismoaren Euskal Agentziaren egoitzan, eraikinaren kanpoaldean, eta gertaera horrek ez zuen egoera baretzen lagundu. Pintada horiek «Euskadiren irudiari kalte handia» egiten diotela nabarmendu zuen orduan Jaurlaritzak, eta EAJk *turismofobia* sustatzea egotzi zion ezker abertzaleari.

Baina Euskal Herrian ez ezik, beste leku batzuetan ere hainbat protesta eta salaketa egin dituzte udan; Katalunian, Balear Uharteetan... Bartzelonan, esaterako, autobus turistiko bat geldiarazi, pinta-



dak egin, eta gurpilak zulatu zizkieten *Turismoak auzoak hiltzen ditu* kanpainaren baitan. Balearrei dagokienez, Euskal Herriaren antzera, Palma de Mallorcan turistei zuzendutako hainbat pintada egin zituzten. Hiri berean, luxuzko itsasontzi batzuetara sartu, eta bengalak piztu zituzten protestagileek, besteak beste. Ibizan, bestalde, *Turista, zoaz etxera!* edo *Turismoak hiriak kaltetzen ditu* zioten pintadak ikusi dira udan. Oihartzuna handia izan da, eta Espainiako Gobernua ere mintzatu da gaiaren inguruan. Hala, Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioak estatuko abokatuari eskatu dio interes turistikoen aurka Katalunian eta Balearretan egindako erasoaren aurrean «beharrezko neurriak» har ditzala.

Azkenaldiko gatazka soziala agerikoa da, eta askotarikoak dira gaiaren inguruko iritzi eta kezkek. Egoera ez da bera leku batean edo bestean, turismo ereduaren eragina ez baita maila berekoa leku guztietan. Hala ere, kexu direnek emandako argudioak antzekoak dira batean zein bestean: alokairuen prezio igoerak, herritarrak beste auzo batzuetara lekualdatu beharra, zerbitzuak garestitzea... Azken finean, turista bera baino, turismo hori masifikatzen duen ereduak da kritikatzeko dutena.

Gaztelugatxeko Doniene «turismo masiboaren ondorioak» pairatzen hasi da aurton. Orain arte hainbat izan dira

Urdaibaiko ermita hori bisitatu dutenak, baina bertan *Game of Thrones* telesailerako irudiak grabatu zituztenetik, egoerak okerrera egin du. Aste Santuan jasotako irudiek argi erakusten dute ordura artekoaren eta egungoaren arteko diferentzia. Jendez lepo izan zen urteko sasoi horretan Gaztelugatxe, eskaileretan zein tontorrean leku hutsik laga gabe. Egoera hura «eutsiezin» bilakatu zela azaldu zuen orduan Idurre Bideguren Bermeoko alkatea. Alarma piztu zela eta, hausnarketarako unea zela azaldu zuen. Hala, turismo jasangarria lortu ahal izateko, neurriak hartzeko beharra ikusi zuen. «Jakin badakigu leku erakargarria dela, baina berau bisitatzen dutenak pozik joatea da helburua». Gainera, argi dauka bermeotarrak halako lekuek jende gehiegi hartzen dutenean daukaten erakargarritasuna galtzen dutela. Eta turismoa arbuiazen ez badu ere, argi dauka jasangarria izan behar dela eta ondo kudeatzen jakin behar dela.

«Game of Thrones telesailerako irudiak grabatu zituztenetik, egoerak okerrera egin du Gaztelugatxen»

«DONOSTIAKO PARTE ZAHARREAN TURISMOA GEHIEGIZKOA»

Gehiengoak uste du Donostiako Parte Zaharrean turismoa gehiegizkoa dela. Kezketan nabarmenena etxebizitzaren merkatuaren ingurukoa da; izan ere, hiriburuetan eta kostako herrietan gora egin dute alokairuen prezioek, eta jabe askorentzat diru iturri paregabea bada ere, bizilagunen gehiengoarentzat bestelakoa da egoera. Merkeago bidaiatu nahi dutenentzako aukera ezin hobea da etxebizitza turistiko bezala ezagutzen diren horietan ostatu hartzea. Eskabideak areagotu egin dira, eta aukerak ere bide beretik doaz. Badira etxea epe laburretarako alokatzea ahalbidetzen duten plataformak, gehienetan lizentzia ofizialik erakutsi behar ez duten horiek biltzen dituztenak. Eta orduan sortzen da herritar askoren kezka eta ezinegona; uste baitute legez kanpoko ostatuek herriko turismoan eragiten dutela. Hortik sortzen dira herritarren protestak eta egoera neurtzeko beharrianaren aldarrikapena. Egoera hori hobetze aldera, hainbat neurri hitz egin da azkenaldian. Tasa turistiko bat ezartzearena da entzunetako bat. Herriko turismoa ordenatzea eta kontrol eza saihestea helburu duen neurritzat dute askok. Katalunian eta Balearretan dagoeneko ezarria daukate, eta Euskal Herriak ere ez du baztertu. Hori bai, ezartzekotan, herri bakoitzak erabakiko luke tasa turistikoaren aukera; hau da, nork bere diagnostikoa eta hausnarketa egin, eta beharrezko neurriak hartuko lituzke. Eneko Goia Donostiako alkateak, esaterako, uste du tasa turistiko ezartzeak turistek eragiten dituzten gastu osagarriak finantzatzeko balioko lukeela: «Turisten eraginez, gehiago dira garbiketara lanak, eta trafikoa zuzentzeko langile gehiago behar izaten dira».

Bada administrazioak tasa turistiko ezaurrei aurretik bestelako neurriak hartzea eraginkorragoa litzatekeela pentsatzen duenik ere; esaterako, hotel, kanpin edo

bestelako ostatuentzako lizentziak ematea eskabideen eta herriak jasan dezakeen presioaren arabera edota ostatu ilegalak arautzea.

Eusko Jaurlaritzak badu Turismoaren Legea, baina, horrez gain, zenbait hirik badute araudi propioa ere; Bilbok eta Donostiak, besteren artean. Beraz, Jaurlaritzaren lizentzia edukitzeak ez du bermatzen negozioak legezkoak direnik. Asko dira lizentziarik ez duten pisu turistikoak, lizentziadunak baino gehiago. Donostian, esaterako, 2017ko abuztuan 1.800 iragarki zeuden AirBnB plataforman, eta horietatik %13k zuen lizentzia. Bilbon ere egoera antzerakoa zen; 459 etxebizitzetatik 385 ziren legez kanpokoak. Nafarroan, bestalde, 2016an egindako azterketetan konturatu ziren etxebizitza turistikoaren erdia baino gehiago zirela legez kanpokoak; gaur egun, esaterako, 200 etxebizitza turistiko dauka legez kanpo, Nafarroako Ostalaritza Elkartearen arabera.

Bilbo zein Donostiako araudi propioaren arabera, soilik lehenengo solairuetan ezar daitezke pisu turistikoak, eta beste solairu batean, baldin eta beheko solairuan beste etxebizitzarik ez badago. Horretaz aparte, parte zaharreko eraikin bakoitzean etxebizitza turistiko bakarra egon daitekeela jasotzen dute hiriburu bi horietako arautegiek.

Donostiaren kasuan, gainera, hainbat neurri hartzera ausartu da udala, batzuetan hiriguneko egoera gehiegizkoa eta larria dela iritzita. Hala, turistei alokatzen zaizkien etxebizitzak arautzeko ordenantza berria egin du. AirBnB bezalako plataformetan iragartzen dituzten oporretarako etxebizitzei eragingo die arautegi berriak; izan ere, negozio gisa erregistratu ahal izateko zenbait baldintza bete beharko dituzte.

Hiru gunetan bereiziko dute ordenantza berria, eta leku bakoitzak bere araudia edukiko du. A eremuan (Parte Zaharrari eta portuari dagokiona), esaterako, ezin

izango da etxebizitza turistiko berriak ezarri, eta ezin izango dira gelak erabilera turistikorako alokatu. Lizentziadun pisu turistikoaren kasuan, bestelakoa izango da egoera, jardunean jarraitu ahal izango baitute. Gros, Amara, Frantzia pasealekua eta Antiguako zati bat hartuko duen B eremuan, berriz, eraikineko etxe turistiko bakarra onartuko dute; betiere, lehen solairuko legetari jarraiki. Hala ere, salbuespen bat ere jasotzen du arautegi berriak: lehen solairutik gorako etxe batek erabilera turistikoa izateko aukera edukiko du, baldin eta azpian erabilera tertziarioko etxebizitza bat baldin badago; alegia, hortz klinika, denda, bulegoa... Azkenik, C eremuan (hiriaren gainontzeko gunek), malgutasun handiagoa edukiko dute pisu turistikoak, eraikinaren garaiera eta azaleraren arabera onartuko baitituzte.

Urtarrilean indarrean jartzea aurreikusten duten araudi horren bitartez, jardura turistikoa eta hiriko bizitzaren arteko oreka lortu nahi du Donostiako Udalak, eta, horretarako, garapen iraunkorra eta bizilagunen bizi baldintzak lehenetsi dituztela azaldu du Eneko Goia alkateak, «aktibitate ekonomikoari bide emanez, baina donostiarren beharrei erantzunez». Hala, Gipuzkoako hiriburu alkateak argi dauka aurrerantzean «tresna eraginkorrago» bat izango dela. Donostiako Udaleko oposizioak, aldiz, «zaila» ikusten du ordenantza berria betetzea, kontuan hartuta egungo araudia ere ez dela betetzen: «Legez kanpokoak ixten ez badituzte, ordenantza berria amnistia ezkutua da».

Gaur egun, 1.200 etxebizitza turistiko daude Donostian, Goiak adierazi duenez, eta horietatik soilik %27k iraun dezake, araudiaren arabera. Parte Zaharreko auzo elkarteak etengabe aritu da herritarren bizi baldintzak hobetzeko eskatzen. Donostiako elkarteak argi dauka: «Arazoa ez da turismo orokorrean, gure turismo eredia baizik». Elkarteak uste



du interes faltsuek eztabaida beste alor batera bideratu dutela, eta horrek aspaldi sortutako alarma-seinaleak isilarazi dituela deritzo.

Nabarmendu dute Donostiako Parte Zaharrean, hiriko gainerako auzoekin alderatuta, hiru bider merkataritza establezimendu gehiago eta sei bider ostalaritza establezimendu gehiago daudela, eta zehaztu dute turistentzako 1.600 ohe baino gehiago biltzen dituzten 280 apartamentu turistiko, hiru hotel eta 62 pentsio daudela. «Gehiegizko merkataritza-ustiatze» horrek ondorio zuzenak dakartzala diote; biziogokitasun-baldintzetan ez ezik, baita etxebizitzaren espekulazioan ere, ondare historiko eraikian, kultura eta identitate balioen suntsike-

tan, frankizien eta inbertsio-funtsen ugaltzean, sortzen den zaratan, zaborren kudeaketan...

Auzo elkartearen ustez, arazo horiek konpontzeko lagungarria izan liteke tasa turistikoa ezartzea, baina neurri gehiago hartzeko beharra ere ikusten du; hala nola, legez kanpoko jarduerak kontrolatzea, baimenak emateko baldintzak mugatzea, ratio bat ezartzea ostatu turistikoaaren eskaintzaren eta egoiliarren kopuruaren artean...

Baina, bitartean, elkarteak uste du turismoa kudeatzeko modu honekin ez dela aberastasunik sortzen eta ez zaiola langabeziari aurre egiten. Dioenez, Euskal Herria «nazioarteko olatuaren gainean ari da surf egiten». Horregatik, eta bestelako

hirietako neurrira ez ailegatzeko, zer egin behar den jakitea beharrezkotzat jotzen du elkarteak. Eta turismo jasangarria izateko bidean, auzoen iraunkortasuna eta biziberritzea turismo ereduaren aurretik jarri behar direla dio. «Parte Zaharrean argi daukagu: barruko espazioa biztanleentzat berreskuratu behar da».

Datu, iritzi zein jarduerak erakusten dute uda igarota ere turismoaren inguruko eztabaidak ez duela etenik edukiko, eta bere ereduaren argiak eta ilunak erakusten jarraituko duela, bai Euskal Herrian nahiz Katalunian zein Espainiako estatuan ere. ■

Loturak zertarako dira, eta nola erabil daitezke praktikoak izan daitezen?

IZASKUN ZUNTZUNEGI

HIZKUNTZA NORMALKUNTZAKO TEKNIKARIA (IVAP)

Loturena oso errekurtso erabilgarria da sareko testuak aberasteko. Testu elektronikoetako loturen bidez, irakurlea sareko beste eduki batzuetara bideratzen da. Desplazatzeko aukera horiez baliatzean, erabiltzaileak «nabigatu» egiten duela esaten dugu.

Webean bi motatako loturak erabiltzen dira:

■ **Nabigazio-loturak:** Webgunea osatzen duten orriak lotzen dituztenez, haien arteko konexioa ahalbidetzen dute. Edukia orri berean irekitzeko konfiguratzeko dira, eta nabigatzailearen *Aurrera* eta *Atzera* aukerak erabil daitezke horrela konfiguratzeko denean.

■ **Hipertestu-loturak:** Edukia aberasteko, webgunetik kanpo dagoen informazio osagarriara bideratzen dute irakurlea (beste web-orri batzuetara edo PDF zein beste formatu batzuetan dauden dokumentuetara). Lotura sortzean, komeni da beste orri batean irekitzeko konfiguratzeko, horrela erabiltzaileak ez du hasierako orria galduko. Horrez gain, argi adierazi behar da esteka horri sakatuta, uneko gunetik atera, eta beste batean sartuko dela.

Loturek bi osagai nagusi dituzte:


- **Aingura-elementua:** erabiltzaileak testuan sakatuko duen puntua beste eduki batera joateko. Aingura-puntu hauek testuan grafikoki nabarmenduta azaltzen dira, azpimarratuz, kolorez zein letra lodiz.
- **Hipertestu-erreferentzia edo URLa:** erabiltzaileak aingura-elementuan klikatzean aktibatuko den orri edo

dokumentua zein den zehazten duen helbidea (http://www.ivap.euskadi.eus/r61vedargeu/eu/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/index.shtml).

LOTURETARAKO ESTILO AHOLKUAK

Jarraian ematen ditugun aholkuek lotura argi eta praktikoak sortzen lagunduko dizute:

- **Ez erabili hipertestu-erreferentziak (edo URLak) aingura-elementu gisa**
Ohiko akatsa da <http://> helbideak aingura-puntu gisa erabiltzea: ez dira batera esanguratsuak, eta testua desitxuratzeko dute; aitzitik, helburua ondoen deskribatzen duten hitzetan ezarriko dugu aingura.
- **Ez bete testua loturekin, eta saihestu alferrikakoak**
Ez da komeni lotura gehiegi erabiltzea. Loturen helburua irakurketa aberastea da, baina loturaz betetako testuek irakurlea oztopoen aurrean jartzen dute behin eta berriro, eta orriaren mezu nagusia nahaspilatu dezakete.
- **Desberdindu tipografikoki maila ezberdinetakoak**
Nahiz eta beharrezkoak soilik erabili, gerta daiteke bigarren mailako loturaren bat mantendu nahi izatea. Halakoetan, tipografikoki bereiztea da



onena, irakurleak bi mailak desberdindu ditzan.

- **Argi erlazionatu aingura-testua eta helburuko edukia**

Irakurleak argi antzeman behar du lotura baten atzean ezkutatzen den edukia, eta zalantza sentituko da loturan sartu eta espero zuena bistaratzen ez bada.

Lotura argiak idazteko:

- Ez erabili hitz ezezagunik loturretan: erabiltzaileak susmatu egin behar du loturan sakatuta zer aurkituko duen.
- Erlazionatu loturak edukiaren tituluekin: lotura eta edukiaren titulua ondo erlazionatzen baditugu, erabiltzaileak jakingo du gune egokian dagoela.

- **Bideratu irakurlea informazio zehatzera, eta ez gunearen atarira**

Irakurleak eskertuko du sarbide zuzena ematea testuaren datuak osatzeko baliagarria izango den informazio espezifikoko batera. Halaber, hobeto sentituko da lotutako orriaren informazioa zehatza bada.

Horrek esan nahi du hobe dela irakurlea webgune bateko barruko orrialdeetara gidatzea, eta ez hasierako orrira; hasierako orrian utziz gero, irakurleak berak egin beharko baitu bilaketa lana.

- **Lehenetsi aingura laburrak**

Lotura laburrak dira gomendagarriak, zenbat eta laburrago orduan eta gutxiago oztokatuko baitute irakurketa. Egokiena hitz bat edo bitan kokatzea da, baina testuaren ezaugarriak direla eta posible ez bada, saiatu ahalik eta lotura laburrenak ematen.

- **Erabili aingura-testu esanguratsuak**

Ez erabili «sakatu hemen», «egin klik» edo «irakurri» bezalakoak. Aukeratu hitzek aditzera eman behar dute zein den loturaren atzean dagoen edukia. Irakurleak loturen esanahia ulertu behar du paragrafo osoa irakurtzeko behar izan gabe.

- **Saihestu loturak edukian gehitzea**

Ahal dela, ez gehitu loturak testuan, testutik atera eta testuaren azpian zerrendatu, horrela ez dute irakurketa oztokatuko.

- **Edukian doazenean, bukaera kokatu**

Aipatu dugu hobe dela loturak testutik ateratzea, baina beti ez da posible. Nolanahi ere, egokiena lehenbizi uneko orriko edukia irakurtzea da, eta behin hori irakurrita, beste dokumentu edo webgune batera eramango gaituen loturan sakatzea; horregatik komeni da loturak paragrafo edo esaldiaren bukaera jartzea.

- **Zehaztu lotutako dokumentuaren formatua eta tamaina**

Loturek HTML¹ orrietara zein beste formatu batzuetan dauden dokumentuetara eramaten gaituzte. Dokumentuak oso astunak izan daitezke, eta, kasu askotan, programa bereziak aktibatu behar izaten dira dokumentuak deskargatu eta ikusi ahal izateko. Hori dela eta, komeni da irakurleari argi adieraztea dokumentu mota eta pisua.

- **Kontuz irudiak lotura gisa erabiltzearekin**

Irudiak lotura gisa erabiltzeak ekar dezake lotura gisa ez identifikatzea, eta, ondorioz, haien helburua ez betetzea. Bestalde, erabiltzaile batzuek ez dituzte irudiak deskargatzen azkarrago nabigatu ahal izateko; halakoetan, ez dira bistaratzen irudietan kokatutako loturak.

- **Egiaztatu loturen funtzionamendua**

Idatzi dugu testua, eta dituen ezaugarriak kontuan hartuta loturak jarri ditugu ahalik eta era argienean. Baina gure lana ez da hori bukatzen, erabat garrantzitsua baita mantentze-lana egitea. Mantentze-lan egoki baterako, sarri egiaztatu behar da loturen funtzionamendua, huts egiten duen lotura batean sartzeak zalantza jarriko baitu gureko edukien balioa.

NOLA GEHITU LOTURAK GURE TESTUETAN

Azaldutako estilo aholkuak aplikatzen badituzu, testu argiago eta komunikatiboagoak sortuko dituzu. Baina, badakizu nondik gehitu behar dituzun loturak?

- Aukeratu aingura-elementua kokatzeko hitz edo testu zatia (irudiko 1).
- Klikatu *Txertatu* menu-barratik (irudiko 2).
- Hautatu *Hiperesteka* (irudiko 3).

Bukatzeke, gogoan izan helburu nagusia irakurleek mezua erraz jasotzea dela, eta, era berean, oztoporik gabeko irakurketaz gozatzea. Hori lortzeko, aplikatu itzazu zure testuetan aipatutako gomendioak, eta lotura argiago eta komunikatiboagoak idatziko dituzu.

Gai honetan sakondu nahi baduzu, jo ezazu *Administrazio hizkera argia* blogera: <http://www.ivap.euskadi.eus/administrazio-hizkera-argia/> ■

1. HTML edo HyperText Markup Language markaketa lengoia bat da, web orriak idazteko sortu zena.

Administraziorako hautaketa-prozesuak XXI. mendean Betiko moduan jarraituko dugu?

FULGEN ALEDO

IVAPEKO IDAZKARI NAGUSIA

Azken urteotan, pertsonalgastuak ez gehitzeko politika gogorra izan dugu administrazio guztietan. Egoera horrek Enplegu Publikoko Eskaintza izoztea ekarri du herri-administrazioetan eta, ondorioz, administrazioetako langileak zahartzea. Ez dugu egoera horren ondorioei buruz hitz egingo, baina ezagunak dira ekarri dituen arazo larriak.

Hala ere, egoera ekonomikoa aldatzen ari dela dirudi; behintzat, hala jakinarazten digute ekonomian adituek, eta, egia esan, azken hilabete hauetan nabarmena izan da administrazio lan-eskaintzen berragertzea: Osakidetza eskaintza, Ertzaintzarena... Hainbat udal lan-eskaintza berriak prestatzen ari dira, Eusko Jaurlaritza ere datorren Enplegu Publikoko Eskaintzari buruz hitz egiten hasi da...

Guztiarekin ere, sektore publikoko lanpostu ugari hornitzeko hautaketa-prozesuen berpiztearen aurrean, komeni da batzuetan begien bistakoa gogoratzea: herri-administrazioek gaitasunik onena daukatenak hautatu behar dituzte, gizartea ezin hobeto zerbitza dezaketenak. Eta gaitasuna edo talentua egon badago, asko gainera; esaten da gaurko gazteak historiako ongien prestatutakoak direla. Orduan, herri-administrazioetatik egin behar duguna da hautaketa-prozesuak egokitzea eta berritzea, gizartean dagoen talentua erakartzeko.

Langileak hautatzea herri-administrazio guztiei dagokien kudeaketa-arloa da. Arlo horrek herritarrentzat administrazioaren jardunaren beste esparru batzuek baino garrantzi handiagoa du. Eta ez da harritzekoa hala izatea: enplegua, oro har, pertsonen oinarritzko eskubidea izanik, eta enplegu publikoa bereziki (ba-

tez ere enpleguaren prekariotasun eta ez egonkortasun garaietan), gure gizartean paper nagusia betetzen duen balioa da. Nahiz eta, nahi baino gehiagotan, funtzio publikorako sarrera polemikek eta eskandalu larriek zipriztindu duten.

ZER DA HAUTAKETA-PROZESU BAT?

Administrazioetan egiten diren hautaketa-prozesuak honela defini ditzakegu: teknika egokiak erabiliz, pertsona batzuen arteko egokienak zein diren ezartzera bideratutako prozesuak.

Gauzak horrela, sektore publikoan egiten diren hautaketa-prozesu guztietan, bi alderdi uztartu behar dira: alde batetik, izangaiek eta gizarteak berak eskatzen duten objektibotasuna eta gardentasuna bermatzea, eta, beste aldetik, herri-administrazioak berak eskatzen duen eraginkortasuna bermatzea.

Herri-administrazioetan sartu nahi dutenen ikuspuntutik, berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta gardentasuna bermatu behar dira hautaketa prozesuetan. Printzipio horiek eraginkor bihurtzeko, bi dira tresnarik baliotsuenak: objektibotasuna eta arrazionaltasuna. Objektibotasuna inpartzialtasunaren eta ebaluazio-tresna egoki, fidagarri eta baliadunak erabiltzearen emaitza gisa ulertu behar da. Arrazionaltasuna, berriz, zentzu komuna erabiltzearen ondorio ezinbestekoa da.

Beste aldetik, aipatu den bezala, administrazioarako hautaketa-prozesuen helburu nagusia eraginkortasunak izan behar du. Horrek esan nahi du prozesua bukatuta jarduera jakin bat egiteko pertsonarik egokiena hautatu dela.

Gure ingurunean, izangaiek espero dituzten printzipioak (berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta gardentasuna), orokorrean; betetzen direla esan ahal dugu, are gehiago, sarritan, hautaketa-prozesuen helburu bakar bihurtzen dira: hautaketa-prozesu bat prentsan eskandalurik gabe eta epailearen parte-hartzerik gabe gauzatzen bada, prozesu arrakastatsutzat hartzen da.

Gutxitan (egia esan, ia inoiz) neurtzen da hautaketa prozesuen eraginkortasuna. Hau da, benetan ez dakigu hautatu diren langileek egin behar den jarduerarako egokiak diren, edo, askoz okerrago, ez dakigu eskatzen zaien lana egiteko gai izango diren.

Ohiko hautaketa-prozesuak oposizio-lehiaketa sistemaren arabera burutzen dira. Lehiaketa-aldia kanpoan utzita (gai honek beste artikuluko bat mereziko luke), honela definitu dezakegu oposizio-aldia: «izangaien jakite-maila zehazteko eta horiek aukeraketan duten lehentasun-hurrenkera finkatzeko, gaitasun-saio teorikoak eta praktikokoak egitea». Beraz, oposizio-aldiaren helburu nagusia da ezagutza teknikoak balioestea eta oposizio-gileak deitutako lanpostura egokitzen direla egiaztatzea.

HAUTAKETA-SISTEMAK BIRPENTSATZEKO BEHARRA

Gehienetan, enplegatu publikoak antzinako paradigma burokratikoaren pean izaten dira hautatuak, bizkor eraldatzen ari den administrazio baten beharretara egokitu gabeko ataza eta metodoetan oinarrituz. Gaur egungo herri-administrazioek izaera askotako zerbitzuak eraginkortasun eta eragimenez kudeatu behar dituzte, eta, hautaketa-prozesua

diseinatzerakoan, egoera berri hau kontuan hartu behar da.

Dena den, gure tresna legal eta teknikoek bidez, gaur posiblea da hautaketa-prozesu baliodun eta fidagarriak ezartzea, ebaluatu ahal izateko administrazio langile izango diren ezaguerak eta garatu behar dituzten gaitasunen multzoa.

Herri-administrazioek, lehiakorrek izan nahi badute, sakonki birpentsatu behar izango dituzte datozen urteetarako hautaketa-sistemak. Sektore publikoak profil balioaniztun profesional berriak hartu behar ditu herritarren zerbitzura egongo den administrazio publiko berrirako. Administrazio berri horrek XXI. mendeko hirugarren hamarkadan irekiko den agertoki konplexu eta aldagarriari aurre egin behar dio.

Beraz, hautaketa-prozesuetan aldatu egin behar dugu herri-administrazioen xedea, oposizio-gileei bermatu behar zaizkien printzipioak ahaztu gabe (berdintasuna, merezimendua...). Baina, profesional baliotsuak erakarri nahi baditugu, hautaketa-prozesuak sakonki berritu behar ditugu.

Eduki behar diren oinarritzko ezaguerak ahaztu gabe, hautaketa-probak hautagaien gaitasunekin lotutako kompetentziak ebaluatzen zuzendu behar dira. Demokrazia aurreratueta, hautaketa-probak bide hauetatik doaz: elkarriketzen eta testen bidez egiaztatzen diren kompetentziei garrantzi gehiago ematen zaie.

Beraz, duela zenbait urtetatik hona, herrialde batzuetako hautaketa-prozesuetan berrikuntza sustraitu da. Ildo horretatik doaz: Kanadan Public Service Commission, Belgikan Bureau de sélection de l'administration (SELOR) eta Europa Batasunean European Personnel Selection Office (EPSO), besteak beste.

Funtzio publikoak ez du behar «ikas-tunik», baizik eta kalitateko zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten profesio-

nalak: egokitzapenaren, erantzunaren, ekimenaren, sormenaren eta inplikazioaren ahalmenarekiko profesionalak.

Baina aipatutako gaitasunak ezin dira ebaluatu betiko hautaketa-sistemaren bidez. Proba berriak erabili behar dira hautaketa prozesuetan: gaitasunak ebaluatzen dituzten testak, nortasun-gal-detegiak, talde-dinamikak... nagusitu behar dira beste teknika askorekin batera. Esate baterako, giza baliabideen arloko ikerketek behin eta berriz erakutsi dute komenigarria dela gaitasun mental orokorra lanpostu guztietarako neurtzea, horrexek aurreikusten baitu ondoen laneko jarduera.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da lan honetan profesionaltasun-dosi handia jartzea. Hautaketa-prozesuen kudeaketa ezin da izan ohiko lanari gehitzen zaion eginkizun osagarria, baizik eta bete-beteko ardura.

Hitz batean, funtzio publikorako sarbidea profesionalizatu behar da. Betiko hastapenak (berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta gardentasuna) betetzea ez da nahikoa; erronka berriei erantzun ahal dieten profesionalak hautatzeko gai izan behar da.

Beraz, hautaketa-prozesu lehiakor eta ireki batean talentua eta beharrezko gaitasunak egiaztatzen dituztenek eskuratu behar dute enplegu publikoa, beti herritarren zerbitzura daudela ahaztu gabe.

Hasieran komentatu dugun bezala, herri-administrazioetarako lan-eskaintzetan suspertzea nabaritzen da, eta, horren ondorioz, hautaketa-prozesu askoren deialdiak argitaratuko dira. Datozen urteetan, ehunka enplegatu publiko sartuko dira herri-administrazioetan. Erronka, beraz, gerorazina da, baina, era berean, administrazio eraginkorragoa eraikitzeko aukera-leiho bat ere bada. ■

Hizkuntzen erabileraren VII. Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016: Emaitza nagusiak

OLATZ ALTUNA ZUMETA ETA MAIALEN IÑARRA ARREGI

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERREKO TEKNIKARIAK

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketan Euskal Herriko kaleetan entzuten den hizkuntza-erabilera behatzen da.

Hau da, ikerketa honek hitzunen kale-erabilera du aztergai eta datu-bilketa hori behaketa bidez egiten da; neurtzaileek entzuten dena jasotzen dute kalean dabilen hitzunei ezertxo ere galdetu gabe, alegia. Hitzunak ez du jakiten behatua izaten ari denik, eta neurtzaileek hitzunen berezko joera jasotzen dute. Modu honetan, inkesta bidezko datu jasoketen subjektibotasuna saihesten da, emaitza fidagarriagoak lortuz.

Euskal Herri osoko ikuspegia lortzeko, lurralde, ingurune soziolinguistiko eta biztanle kopuru desberdina duten herriak neurtzen dira. Herri horietan, elkarrizketak behatzeko ibilbide batzuk definitzen dira. Herriaren bizitza sozialaren adierazgarri diren kaleek osatzen dituzte ibilbideok. Bi neurtazile ibilbide hauetan zehar paseatzen dira zenbait orduz. Aste-ko une desberdinetan eta diskrezio osoz, neurtzaileek koaderno batean bere inguruan entzuten dituzten elkarrizketen datuak jasotzen dituzte. Metodologia honi buruzko informazio zehatzagoa *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa (2013)* argitalpenean jasotzen da.


Euskal Herrian sorturiko metodologia honek hizkuntzen egoera zertan den eza-
gutzeko ezinbesteko erreferentzia bilaka-

tu diren datuak eskaintzen dizkigu. Gaur egun, erabat baliagarria da euskararen egoera diagnostikatzeko eta funtsezkoa bihurtzen da hizkuntza-errealitatea eza-
gutu edota planifikatu nahi duen edonoren-
rentzat.


EUSKARAREN KALE-ERABILERA OROKORRA

2017ko uztailean egin ziren publiko Euskal Herriko kaleetako hizkuntza-erabileraren datu berriak. Gaur egun, % 12,6koa da euskararen kale-erabilera Euskal Herrian. Ikerketaren VII. edizio honetan entzundako 187.635 elkarrizketetan parte hartu duten solaskide gehienak gaztelaniaz ari ziren (solaskide guztien % 76,4a alegia). Frantsesez entzun dira solaskideen % 8,3a eta azkenik, % 2,7a ari zen beste hizkuntzaren bat erabiltzen.

1. Grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. EUSKAL HERRIA, 2016 (%)



2. Grafikoa: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. EUSKAL HERRIA, 1989-2016 (%)



Datu berri horiek zeresana eman dute azken hilabeteotan. Izan ere, 2011ko datuek adierazitako joerei jarraituz, **azken hamar urteetan euskararen kale-erabilera apaldu egin da.**

Hala eta guztiz ere, **lurraldeka desberdina da euskararen kale-erabileraren egoera eta izan duen bilakaera.** Beste edizioetan gertatu bezala, Gipuzkoan jaso da euskararen kale-erabilera mailarik altuena (%31ekoa). Bizkaian, ia %9ko erabilera behatu da. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, berriz, ia %7ko eta %5eko erabilerak behatu dira, hurrenez hurren. Eta azkenik, gaur egun euskara gutxien erabiltzen den lurraldea Araba da, ia %5eko erabilera datuarekin.

Era berean, lurralde guztiek ez dute bilakaera bera izan hogeita zazpi urte haue-

tan. Lautada baten irudia hartzen dute Araba, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko bilakaeren grafikoek, jarraian ikus daitekeen moduan. Baina aipagarriak dira bi ohar: Arabako eta batez ere Nafarroako erabilerak azken bost urteetan gora egin izana, batetik; eta bestetik, Ipar Euskal Herrian inoizko erabilera-indizerik baxuena behatu izana.

Gipuzkoari begiratzen badiogu, neurketaz neurketa euskararen kale-erabilerak etengabe gora egin duela esan behar dugu; azken bost urteetan, ordea, atzera egin du erabilerak. Eta Bizkaiaren kasuan, berriz, erabilerak 1997ra arte gora egin eta 1997-2006 urte bitartean bere horretan mantendu ostean, azken hamar urteetan behera egin du.


INGURUNE SOZIOLINGUISTIKO EZBERDINETAKO EMAITZAK

Euskararen ezagutza txikiagoa den eremuetan, Hego Euskal Herrian, azken bost urteetan, bere horretan mantendu da euskararen kale-erabilera; Ipar Euskal Herriko eremu horietan (BAM¹ eta Lapurdi barnealdea), ordea, azken bosturtekoan jaitsiera gertatu da. Garrantzitsua da kontuan izatea Euskal Herriko biztanleen gehiengo zonalde hauetan bizi dela, zonalde erdaldunenetan alegia.

Elebidun gehien duten eremuetan, berriz, euskararen erabilerak behera egin du Hego Euskal Herrian azken bost urteetan; eta Ipar Euskal Herriko ezagutzarik altueneko eremuan (Nafarroa Beherea eta Zuberoa) igoera sumatu da.


1. BAM: Baiona, Angelu, Miarritze eta Bokale.

3. Grafikoa: EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA. Araba, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria. 1989-2016 (%)



ITURRIA: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.

4. Grafikoa: EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA. Gipuzkoa eta Bizkaia. 1989-2016 (%)



ITURRIA: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.

EUSKAL HERRIAN ZENBAT ETA GAZTEAGO, ORDUAN ETA GEHIAGO ERABILTZEN DA EUSKARA

2016ko datu berrienei erreparatuz, **haurrek hitz egiten dute euskaraz gehien, gazteek ondoren, helduek eta azkenik adinekoek**. 1989. urtean bestelakoa zen egoera: haurrak ziren euskara gehien erabiltzen zutenak baina jarraian, adinekoak eta helduak kokatzen ziren, gazteek azken postua hartuz. Gaur egun, hurrenkera egokiena dugu beraz, hizkuntzaren berreskuratzeari begira.

Hogeita zazpi urteko bilakaeran (1989tik 2016ra) haurren, gazteen eta helduen erabilerak gora egin du eta adinekoen erabilerak, berriz, etengabeko beherakada izan du. Dena den, azken hamar urteotan adin-talde guztietan atzerakada gertatu da.

ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERAKO EMAITZAK

Adinaren eta sexuaren aldagaiak gurtzatuz gero, **emakumezkoek gizonazkoek baino euskara gehiago darabilte adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik**. Aurreko bi edizioetan ere portaera hau errepikatu zen, eta 2016an Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian emakumezkoek euskara gehiago egitearen portaera lehen aldiz atzeman denez, dagoeneko portaera orokortua da lurralde guztietan.

HAURREN PRESENTZIAREN ERAGINA EUSKARAREN ERABILERAN

Haurren presentziak euskararen kale-erabileran duen eragina aztertzeko, elkarrizketak hiru multzotan sailkatzen ditugu: haurrak bakarrik daudenean, nagusiak² bakarrik daudenean, eta **haurrak eta nagusiak talde berean daudenean**. Azken


2. Nagusizat definitzen ditugu haurrak ez diren beste hiru adin-taldeetako solaskideak, gazteak, helduak eta adinekoak alegia.

mota horretako elkarrizketetan **jasotzen dira euskararen kale-erabilerarik altuenak** eta jarraian, haurrak bakarrik daudenean erabiltzen duten erabilera maila kokatzen da. Salbuespen dira Arabako zein Nafarroako kasuak: haurren arteko (nagusirik gabe) zein nagusien arteko (haurrik gabe) erabilerak maila bera adierazi dute 2016an.

Bilakaerak aztertuz, **azken hamar urtean aldaketarik handiena haurrek osatutako solaskide-taldeen euskararen erabileran gertatu da: 3,6 puntuko jaitsiera** izan du Euskal Herri osoko datuak kontuan hartuz. Nagusien arteko (haurrik gabe) zein haurrez eta nagusiez osatutako elkarrizketetako euskararen erabilerak, berriz, ez dute gorabehera esanguratsurik izan.


Hizkuntzen Erabileraren VII. Kale-Neurketak utzitako emaitza nagusienak ondorengo txosten honetan daude eskuragarri: http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-eu_1.pdf ■

5. Grafikoa: EUSKARAREN ERABILERA, ADIN-TALDEEN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016 (%)




ITURRIA: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 2016.

7. Grafikoa: EUSKARAREN ERABILERA, SEXUA ETA ADIN-TALDEEN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016 (%)




ITURRIA: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 2016.

6. Grafikoa: EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 1989-2016 (%)



ITURRIA: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.

8. Grafikoa: EUSKARAREN ERABILERA, HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA eta LURRALDEAK, 2016 (%)



ITURRIA: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 2016.

Adimen Anizkunen Teoria: adimenaren iraultza

EDURNE ETXEBERRIA TELLETXEA

LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEA

Esperientziaren aztarna adimenaren garapenean

Iraganera begiratzen badugu, edota begiak itxi eta iraganeko eskola garaia gogora ekartzen badugu, ziur asko oroitzapen askorekin topo egingen dugu. Oroitzapen batzuk, gertaera bereziekin lotuko ditugu, eta esperientzia bakoitzak bere eragina izan duela konturatu gaitezke, edo ez, esperientziak inkontzientearen atzaparretan geratu zaizkigun kasuetan.

Esaterako, esaten da, Albert Einsteinek 4 urte zituela, bere aitak iparrorratz magnetiko bat oparitu ziola. Erlatibitatearen teoriaren sortzaileak, heldua zenean, unibertsoko misterioak argitzeko nahiarekin lotzen zuen gertaera hori. *Esperientzia kristalizatzaile* bat izan zela esan daiteke, hau da, bere historia pertsonalean gertaera gogoangarri bat, bere talentu eta abilezien garapenerako gako bat.

Aldiz, badaude guztiz aurkakoak diren beste esperientzia batzuk, *esperientzia paralizanteak* deiturikoak. Hauek adimen baten garapena blokeatzen dute. Adibide gisa, gelakideen aurrean ikasle baten lan artistiko hasiberri bat gutxiesten duen irakasle batek eragindakoa. Horrelako esperientziak emozio negatiboz beteak daude, eta adimenen ohiko garapena geldiarazteko gai dira. Beldur, lotsa, erru edo gorroto sentsazioek adimenaren garapena ekiditen dute. Horrela, gerta daiteke haurrak gehiago margotu nahi ez izatea «ez dakiela egiten» erabaki duelako.

Baina, zer da adimena?

Iturri desberdinetara jotzen badugu, adimenaren definizio asko eta desberdinak aurki ditzakegu. Beraz, honek jada adostasun falta dagoela agerian uzten digu pertsona bat adimentsu den ala ez ziurtasunez baieztatzeko. Aspalditik uste izan da, adimentsua izateko, pertsona batek batez ere matematiketan eta hizkuntzetan nabarmendu behar zituela bere abilezia eta trebetasuna. Oraindik ere, sinesmen edo ideia horrekin topo egin dezakegu, bai eskoletan eta baita gizartean ere.

Adimenaren definizioari jarraikiz, hone-lako erantzunak aurki ditzakegu: «Uler-tzeko ahalmena, pentsamendu bidez nor bere buruaz eta inguruaz jabetzeko ahalmena» edota «Egoera bati aurre egiteko, arazo bati irtenbidea emateko, zirkuntantzien arabera aukera egiteko ahalmena», Harluxet Hiztegi Entziklopedikoan, adibidez. Leonardo da Vinci polimataren hitzetan adimena «ikusten jakitea» da, eta Edgar Morin filosofoaren arabera «egoera konplexuetan, arazoak pentsatu, landu eta konpontzeko ahalmena». Baina bada beste definizio osatuago bat, Howard Gardner estatubatuarrena; psikologo eta Harvard unibertsitateko irakasle honen arabera, «adimena kultura batean aktibatu daitekeen informazioa prozesatzeko ahalmen biopsikologikoa da, kultura batentzat balioa duten arazoak konpontzeko edota produktu

berriak sortzeko». Jaiotzen garenean gure garunak ezaugarri batzuk ditu genetikoki, hau da, fruitu bat bezala, hazi batekin gatoz mundura. Hazi hau «lote-ria genetiko»tzat har dezakegu, gizakiari izatez datorkiona. Aldiz, hazten goazen heinean, hazi hori ere garatuz doa, gure burmuineko neuronen arteko loturak aldatzarekin batera. Neurozientziak frogatu duen modura, gure garunaren plastikotasuna agerian geratu da. Beraz, haziz doan pertsonaren testuinguruak –familia, hezkuntza eta kultura– eragina izango du hauraren garunaren garape-nean.

Adimen anizkunen teoria

Howard Gardnerrek, urteetan zehar aurrera eramandako Zero proiektuaren ondorioz, 1983an adimen anizkunen teoria argitaratu zuen. Teoria horren arabera, pertsona orok gutxienez zortzi adimen mota ditugu maila batean edo bestean, garuneko eremu zehatzetan kokaturik. Orain dela gutxi arte, adimen bakar eta estatikoa genuela eta bizitza osoan ez zela aldatuko sinestarazi digute, horretarako test edo proba zehatz batzuk erabiliz. Teoria honek iraultza ekarri digu, adimen anizkunak eta aldakorrek baieztatuz. Gardner eta bere kolaboratzaileek adierazi dute pertsona baten adimen akademikoa ez dela faktore erabakitzaile bere adimena ezagutzeko.

Eskolan, baditugu zenbait kasu akademikoki emaitza bikainak lortu dituztenak eta harremanetan arazoak dituztenak, esaterako. Edo alderantziz, akademikoki emaitza onak lortu ez dituzten arren, bizitzako beste aspekturen batean arrakasta izan dutenak. Gardnerren arabera, pertsona bat ez da beste bat baino adimentsuagoa, bakoitzak adimen mota bat garatzen baitu.

Hauke dira 8 adimen motak:

- **Adimen linguistikoa:** hizkuntza modu eraginkorrean erabiltzeko gaitasuna; ideiak eta sentimenduak ahoz edota idatziz adierazteko gaitasuna.
- **Adimen logiko-matematikoa:** zenbakiak modu eraginkorrean erabiltzeko edota arrazoitzeko gaitasuna.
- **Adimen intrapertsonala:** nor bere burua ezagutzeko eta ezagutza horren arabera jokatzeko gaitasuna.
- **Adimen interpertsonala:** besteen gogo-alderateak, asmoak, motibazioak eta sentimenduak hauteman eta bereizteko gaitasuna.
- **Adimen ikus-espaziala:** ikus-espazio mundua zehaztasunez hautemateko eta pertzepzio horien arabera eraldaketak egiteko gaitasuna.
- **Adimen musikala:** musikako formak hauteman, bereizi, eraldatu eta adierazteko gaitasuna.
- **Adimen kinestesikoa:** ideia eta sentimenduak adierazterakoan gorputza erabiltzeko gaitasuna.
- **Adimen naturalista:** espezie, objektu eta pertsonen arteko erlazioak ulertzeko gaitasuna.

Gardnerren hitzetan, denok gara adimentsuak, bakoitza bere esparruan. Beraz, pertsona bat adimentsu den ala ez galdetu beharrean, nola den adimentsu galdetu behar dugu. Denok ditugu zortzi adimen motak, garapen maila desberdinekin, baina guztiak garatu ditzakegu maila egokia lortu arte.

Begirada-aldaketa hezkuntzan

Oraindik ere, geletan irakasten den hezkuntza mota batez ere bi adimen mota (adimen linguistikoa eta logiko-matematikoa) lantzeko eta ebaluatzeko eduki eta prozedurak eskaintzen tematzen da. Baina hau ez da nahikoa haurrak haien potentzialtasun osoa aintzat hartuta hezteko.

Eskolak ikasle bakoitzaren adimenak garatzeko aukerak eskaini behar ditu, eta ikasle guztiak berdina direneko pertzepzioa baztertu. Talde lanean informazioa jasotzeko iturri bibliografiko zein elektronikoak izango dituzten giroak izan behar ditu eskolak. Hau da, ikaslearen pertsonaren ikuspegi integratzaileagoa, buru pluralistagoa, kognizioaren alderdi desberdinak onartzen dituen, pertsonen potentzial desberdinak eta estilo kognitiboak dituztela onartzen dituen. (Maschwitz de, 2001).

Metodologia estrategia sortzaileak eta berritzaileak bermatu behar dira, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu aktiboago, eraginkorrako eta kalitate handiagokoak sortzeko. Horrez gain, batetik, adimen anizkunei loturiko autoezagutza zein eguneratze pertsonala bultzatu behar dira, eta, bestetik, profil profesionala, formakuntzarako bideak eta ikasleen autoestimua hobetu, ikasleak motibatuz beste adimen horiek ere baloratzera eta bokazioari begirako orientazio prozesuei ekitera (Castillo, 2000).

Langile onaren bidean

Adimena, arazoak konpontzeko edota produktu berriak sortzeko ahalmena izanik, modu desberdinetan erabil daiteke. Howard Gardnerrek argi uzten du adimen anizkunen garapen maila altua izatea, eta zailtasunen aurrean ahalegintzea, ez direla gakoak arrakasta profesional eta pertsonala lortzeko.

Azpimarratzen digu bi gaitasun horiek helburu positibo eta etikoetarako zu-


zentzea ezinbestekoa dela: pertsona, langile eta herritar ona bihurtzeko. Hau *The Good Project* proiektuan adierazi zuen, bertan etikari buruzko galdera askori erantzunez.

Adibide gisa, denok ezagutzen ditugu arrakasta duten enpresak, gogor lan egiten duten zuzendari adimentsuak izan arren, aberasteko gogo bizia dutenez, gezurretan ibili, informazioa manipulatzea eta eragiketa ilegal eta etikarik gabekoak egiten dituztenak. Ekintza horiek ondorio oso kaltegarriak dituzte beste pertsonengan, haien lana eta aurrezkiak galtzea, esaterako.


Exekutibo horiek ezin dira profesional onatzat hartu. Gardnerrek langile ona eta pertsona bikaina, konprometitua eta etikoa bezala definitzen du profesional ona.

Ezaugarri hauek hezitzaile on bati jartzeko badizkiogu, honelakoa izango da: bere gaian ezagutza zabala duena; bere lanarekiko motibatua eta hurrengan interesa duena; egoera batzuetan interes kontrajarriak izanda ere, erabaki zailak hartu beharko dituela ulertzen duena; ustezko biderik zuzenena zuzur ebaluatzea beharko duena; eta, okertzen denean, bere akatsetatik ikasiko duena. ■

Hitz geizidunak

	Ahalsua	▼		Irungoa	▼		Nafarroako ibaia	▼		Egile atzizkia	▼		Zuen
	* DEITURA			Errep., ikara			Barazki lekaduna			Ukitzeko ahalmen			
	➡			▼			▼			▼			▼
	Oholak	➡										Bokala	➡
	Biz											Azkena eta lehena	
Ehunak	▼	Zangoa	➡	▼				Beldur	➡		▼		
* IZENA		Sagar prentsa						Kanpo					
➡		▼			Antzerkiak	➡		▼					
					Kasik								
Ostarte	➡				➡							Bokala	➡
Zaliaren neurria												Asiako estatua	
➡								▼ Zer lekutan?	➡		▼		
								Urte sasoa					
Musika nota	➡		Sufrea	➡	Röntgen	➡	Urania	➡	▼	1.000	➡		Errepikatuz fruta tropikala
Lan saioak			Adunaren kontso.		Nokaren kontso.		L birritan			2			
➡			▼		▼		▼			▼			▼
Pl., musika tresna	➡					Lanbro	➡						

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Buru babesgarriak.
2. Erabateko nahasketak.
3. Lokarriak.
4. Anitz, ugari.
5. Bizkaiko ibaia.
6. Emakumeekiko hika.
7. Ibiltzeko erabiltzen ditugu.
8. Artilleriako pieza sendoa.
9. Anaiaren emaztea.

SOLUZIOAK

	B	I	E	L								
	R	O	D	I	G	U	Z					
	T	A	U	L	K	E						
	B	E	R	N	A	I	Z	U				
	O	E	I	D	E	R	A	M	A	K		
		H	O	D	E	I	A	R	T	E	A	
		Z	A	L	I	T	A	R	A	N	O	N
		L	A	S	R	U	M					
		J	A	R	D	U	N	A	L	I	A	K
		K	E	N	A	K	L	A	I	N	O	

Goitik behera

1. Kaskoak 2. Kaosak 3. Sokak
4. Asko 5. Oka 6. Noka
7. Oinak 8. Kanoia 9. Koinata

JARDUNALDIAK

OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ZERGA- ANTOLAMENDUA

DERECHOS FUNDAMENTALES Y ORDENAMIENTO TRIBUTARIO

Noiz

2017ko azaroak 23 eta 24

Non

Miramar Jauregia
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN


Matrikulazio-epea

- Azaroaren 14ra arte
Eusko Jaurlaritza (automatrikulazioa)
- Azaroaren 20ra arte
beste administrazioak

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA





IVAPen argitalpena

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

zure etxean doan jaso nahi baduzu,
idatzi helbide honetara:

IVAP

Donostia-San Sebastián 1
01010 Vitoria-Gasteiz
administrazioaeuskaraz@ivap.es

Abizenak

Izena

NAN/IFZ/ENA

Helbidea

Posta-kodea

Herria

Probintzia

Mugikorra

e-posta

Interesdunak ematen dituen datuak prozeduran edo ekitzan aurreikusten diren helburuetarako baino ez dira erabiliko, hau da, *Administrazioa Euskaraz* aldizkaria bidaltzeko eta horren harpidetzak kudeatzeko. Datu horiek, inolaz ere, ez zaizkie emango beste batzuei, interesdunak horretarako baimenik eman ez badu. 15/1999 Lege Organikoak ezartzen duena betez, datuak eman dituenak eskubidea du datuak noiznahi ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien aurka egiteko. Horretarako, eskutitz bat bidali beharko zaio IVAPeko zuzendariari honako helbide honetara: Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.